

Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa Jardunaldia

Donostia, 2013-II-24

Euskera. 2012, 57, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564



Sarrera

INIGO, Andres
Jagon Sailburua

Euskera. 2012, 57, 3. 467-469. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaltzaindiak sorreratik du Jagon Saila, eta bere helburuetan euskara sustatzea, hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta hiztunen eskubideak zaintzea daude.

Helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik, euskararen corpusa jagoteko eginkizuna eman zitzaion Jagon saileko Corpus batzordeari, 1999an sortu zenean.

Erran daiteke batzorde honen lan nagusia dela administratibotik, hedabideetatik eta bertze hainbat arlotatik heltzen zaizkion galderei, zalantzei eta irizpen eskaerei erantzutea. Lan horri erantzun egokia emateko sortu ziren 2001ean komunikabideen eta euskalkien lantaldeak. Euskalkien lantaldeak bide propioa egin du geroztik, eta komunikabideen lantaldeak urte gutxi batzuk iraun zuen, baina alor hori lantzen segitzen du Corpus batzordeak berak. Batzorde honen barnean dago Jagonet zerbitzua, herritarrek Euskaltzaindiari egiten dizkioten galderen eta erantzunen datu-basea.

2006tik «estrategia komunikatiboak» egitasmoa lantzen ari da batzordea, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboaren barnean kokatzen diren estrategia eta gaitasunak aztertzen, alegia.

Eta horren guztiaren emaitza argia izan zen orain dela hiru urte pasatxo Euskaltzaindiaren *Jagon bilduman* aurkeztu zen *Testu antolatzaileak: erabilera estrategikoa* liburua, Pello Esnal batzordekidearen gidaritzapean egin eta batzordean mamitu eta ondutako lana. Aurkezpenarekin batera, jardunaldi bat antolatu zen Iruñean.

Lehengo gidari eta batzorde beretik datorkigu oraingo *Hitz-ordena: erabilera estrategikoa* izeneko ere. Lan hura bezala, oraingo hau ere ekarpen praktikoa da, euskalgintzan ari garenoi eguneroko erabileran sortzen zaizkigun kezka eta zalantzen inguruan argia emateko pentsatua. Tradizioak markatzen dituen estrategia praktikoak kontuan hartuta, ikuspegi komunikatibotik aplikatu beharreko estrategiaiei begira egina.

Horregatik, Corpus batzordeak egoki ikusi zuen liburuaren edukiaren inguruan gaurko jardunaldi hau antolatzea. Izena eman eta hona hurbildu zaretenen kopurua ikusita, bistakoa da gaiak interesa sortu duela.

Ongi etorri, bada, Euskaltzaindiaren *Luis Villasante* ikergune berri honetara zareten guztiei esku artean dugun gai honen inguruan hausnarketak, iradokizunak eta ekarpenak egitera. Esker mila ere, gaur hizlari eta iradokiztaile gisa aritzeko ardura hartu zenutenei, egin duzuen lanagatik; halaber, jardunaldi honen antolaketan aritu zareten batzordeko idazkariari, kideei eta etxeke langileei.



Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa

ESNAL, Pello
Euskaltzaindiko Corpus batzordekidea

1. Atarikoak

Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa [HOEE] egoki ulertzearren¹, komeni da, hasteko, 1968ra itzuli eta Euskaltzaindiak Arantzazun egindako biltzar hartan kokatzea, Koldo Mitxelenak harako prestatutako txostena eskuetan. Eta komeni da, horrekin batera, kontuan hartzea beste zenbait gai eta puntu. Horretara goaz atariko honetan. Ondoren, errazago azalduko dugu HOEE.

1.1. Mitxelenak Arantzazuko biltzarrerako eginiko txostena

Honela zioen Koldo Mitxelenak 1968an, Arantzazuko biltzarrerako idatzi zuen txostenaren sarreran (Mitxelena, 1968: 204):

¹ Corpus batzordeak Donostian aurkeztu zuen *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* liburua, Euskaltzaindiaren egoitzan, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 2012ko otsailaren 24an. Bi zati izan zituen aurkezpenak. Lehenean, liburua bera aurkeztu nuen, aurkibidearen harian, atalez atal, bakoitzaren muina azalduz. Bigarren zatiak izenburu propioa izan zuen: «Euskara idatziaren auzia, sei puntu eta eranskin batean»; eta horixe izan nahi zuen: euskara idatziaren gaurko egoera labur azaldua, ondorengo elkarriketaren akuilu. Lehena, *power point* baliatuz egin nuen, 30 diapositiba erabiliz; bigarrena, hitzez soilik. Aurkezpen bikoitz hartarako zirriboratu nuen gidoi hau; eranskin gisa darama aurkezpenaren bigarren zatia, errepikapenak errepikapen. Esan gabe doa: erakusleiho moduan ulertu behar da (liburura jotzeko amu) eta ez laburpen moduan.

«Euskaltzaindiari hemen aurkezten zaizkion eskabideak honela mugatuko ditugu, errazenetik zailenera:

- a) Idazkera edo ortografia.
- b) Antzinako euskal hitzen formak.
- c) Hitz berrien eraketa eta bestetandik hartuen forma.
- d) Morfologia: izena (izenordea) eta aditza.
- e) Joskera.

Zenbaitetan, ez dugu oraingoz deus egiterik, horretarako behar genituzkeen estudioak ez baititu inork egin. Beste zenbaitetan, berriz...»

Batik bat, joskeraren atalari zegozkion, noski, euskara batua ontzeko «behar genituzkeen estudio» horiek. Nonbait bazegoen, alor horretan zegoen euskara beharrean.

1.2. Arantzazuko txostena: VI atala

Eta, hala ere, mugak muga, txostenaren VI. atala eskaini zion Mitxelena joskerari (Mitxelena, 1968: 218-219): gaurkotasun betea duen atala, trinkoa bezain aberatsa.

1.3. Arantzazuko biltzarraz geroztik egindako bidea

Geroztik, berrogeita lau urte hauetan, egin eta plazaratu da euskal joskerari buruzko gramatika-lanik.

Esaterako, HOEEn, honako hauek erabili ditugu. Hasteko, Euskaltzaindiaren baitan ondu eta EGLU liburukietan jasoak (Gramatika batzordea 1987, 1990, 1991, 1993, 1994, 1999, 2005); eta, horiez gain: Villasante (1976), Goenaga (1978), Osa (1990), Agirre (1991), Hidalgo (1994, 2002a, 2002b, 2003, 2004, 2005a, 2005b), Zubiri, Zubiri (1995), Kaltzakorta (1997) eta Arejita (2001, 2005). Asko luza daiteke zerrenda, jakina.

1.4. Gaurko egoera

Baina, hala ere, estudioak estudio eta azterketak azterketa, problemak ditugu euskal joskerarekin. Hona hemen, bi testigantza:

Luis Villasanterena da lehenengoa, Arantzazuko biltzar hartatik hogeit urtera argitara emana (Villasante, 1988: 142):

«Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.»

Eta, beste hogeit urte geroago, honela idatzi berri du Anjel Lertxundi idazleak, eskarmentuaren eskarmentuz (Lertxundi, 2009: 24):

«Indarrik banu, pozik aldatuko nuke euskal perpausa. Arindu esan nahi dut. Agian, irauli ere esan beharko nuke. Esaldiak eraman behar ninduke ni, eta ez nik bera. Nire zerbitzuan behar luke egon, ez nuke denbora guztian zalantzaz ibili behar hizkuntza hegemonikoetako idazleak lasai peto dabiltzan bideetan. Esaldiak bizkortu, lexikoa garbitu, arin-arin ibili perpausetik perpausera, esaldien arteko loturak freskatu...

Behin eta berriro asmatzen ibili beharrak baditu abantailak. Eragozpenak ere bai: ikaragarri nekatzen du. Idazten duzun esaldi bakoitzatza beste gailur konkistatu bat balitz bezala ospatzeko, mendizale handia izan beharra dago».

1.5. Gramatika nahikoa ez denean

Nahitaezkoa da gramatika, baina ez da nahikoa. Hizkuntza, zuzen ez ezik, egoki ere erabili behar da.

Koldo Mitxelenak honela zioen, 1968ko txostenaren VI. atalean (Mitxelena 1968: 219):

«...euskal prosa arruntaren izatea, egoera eta huts-beteak aztertu nahi genituzke, «gramatikatasunean» landaturik baina «gramatikatasun» soilean oinak itsasten ez zaizkigularik».

Idazle onek bazekiten horren berri. Pixkana-pixkana eguneratu eta zabaldu da gure artean. Horretan saiatu dira, besteak beste, Eusebio Osa (1990) eta Zubimendi & Esnal (1993).

1.6. Estrategiak

Gehiago ere idatzi zuen Mitxelenak 1968ko txostenean (Mitxelena 1968: 219):

«Hitz-ordenaz eta aurkitu diren legeak ez dira idazlea estekatzeko kateak, honen kemenak gehi ditzaketen lanabesak baizik, hitzen indar ezkutua nabarmenduz. Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, gaitz betetzen: hizkuntzari bere burua menderatuz, hizkuntza menderatu, hizkuntza-legeen lokarriak eta trabak, airea hegaziarentzat bezala, sostengu eta laguntza bihur daitezzen».

Estrategia kontzeptua hor zegoen zirriborratua. Gehiago zehaztea falta zen, eta terminoa bera gureganatzea. Hizkuntzen irakaskuntzan erabili zuten Canalek eta Swainek (Canale & Swain, 1980), eta bide bertsutik iritsi da gugana (Esnal, 2002, 2009).

1.7. TAEE

Ildo horretan, Euskaltzaindiak 2008an plazaratu zuen *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* [TAEE], Corpus batzordean ondutako lana (Corpus batzordea, 2008).

Lan horretan, erabilera estrategikoa zen funtsezkoa; eta testu-antolatzaileak baliatu genituen estrategien berri eman eta gaitasun estrategikoa lantzeko.

Hizkuntzaren erabileran, dena ez da arau. Behin arauak betez gero, eremu handia gelditzen zaio hizkuntza-erabiltzaileari, honek askatasunez (eta erantzukizunez) jokatu eta erabakiak har ditzan; edo, bestela esanda, zer estrategia erabili erabaki dezan.

Erabaki egokiak hartzeko gaitasuna da gaitasun estrategikoa. Eta bizitzaren arlo guzietan erabili ohi dira. Pilota-jokoan, esaterako, pilotari estrategikoak, behin arau gutxi batzuk bete ondoren, askatasun osoz erabaki dezake nola jokatu, nora bota pilota. Beste horrenbeste gertatzen da hizkuntza baten erabilera idatzian nahiz ahozkoan.

1.8. TAEEn ondoren

Azken hiru urteetan, estrategien arloan egin da lan bikainik. Bereziki, hiru aipa ditzakegu: «Euskarazko testuen komunikagarritasun-problema larriak» (Aristegieta, 2009), *Itzulpen Estrategiak* (Agirre, 2009) eta *Euskara batuaren bigarren jaiotza* (Amuriza, 2010).

2. HOEE

Eta duela hiru urteko TAEEn haren harian dator HOEE hau ere, lau ataletan eta bederatzi kapitulutan banatua, aurretik eta atzetik dituela sarrerak eta bibliografia.

2.1. Eskema

Aurkezpena

Sarrera

EGITASMOA

1. Arantzazuko txostena oinarri
2. Tradizio bikoitzaren harian

BIDEAK URRATZEN

3. Testu-antolatzaileak
4. Mintzagaia eta galdegaia
5. Erlatibozko esaldiak

BI AUKERA

6. SOA
7. SAO

LABURBILDUZ

8. Osotasunean
9. Hitz-ordena

Bibliografia

2.2. Egitasmoa

Arestian atarikoan esanak biltzen ditu HOEEk sarreran eta lehen atalean.

Oinarri-oinarrizkoa da estrategiak zer diren ohartzea. Eta, horrekin batera, ohartzea zein den gramatikaren egitekoa eta zer muga dituen.

Hasteko (16. or.):

«Lan honetan [HOEEen], gramatikaz ari garenean, gramatika arauemaileaz ari gara beti. Funtsezkoa da ondo bereiztea gramatika arauemailea eta deskribatzailea. Bestela, dena bihurtzen zaigu arau, kate eta lotura».

Horren harian, kontuan izan behar da TAEEn esana eta HOEE honetan berritua (16. or.):

«Euskal gramatikari buruz, bi uste oker bezain gaizto daude euskaldunon artean zabaldua: batetik, arautzen duena baino gehiago arautzen duela eta, bestetik, zenbait hizkuntz baliabideren erabileran (esaterako, testu-antolatzaileen eta hitz-ordenaren erabileran) nahikoa dela arau gramatikalak betetzea».

2.3. Testu-antolatzaileak

Testu-antolatzaileek (juntagailu, menderagailu, lokailu eta gainerako elementuek) testu-zatiak lotzen dituzte, eta ondoren datorrena iragartzen dute eta pausa prosodikoak ere marka ditzakete.

Horren arabera, nahiz eta gramatikalki zuzena izan, garrantzikoa da testu-antolatzaileak ondo aukeratzea eta egoki kokatzea.

Esaterako, honela zioen Xabier Letek, 1974an (Lete, 1974: 42; nireak dira letra lodiak):

«Lizardik, gerla baino hiru urte lehenago hil baitzen, ez zuen hondamendi ikaragarri hura ezagutu. Eta, egia esan, bihotzez pozten naiz. Lizardi bezalako poeta bikain bat hain gazterik hiltzea alde batetik penagarri **bada ere**, harentzat, hain gizon zuzen eta fina zen harentzat, handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria are penagarriago eta minberagarriago izan **baitzitekeen**».

Honela ere idatz zezakeen, testu-antolatzaileak aurreratuz:

«Lizardik, gerla baino hiru urte lehenago hil baitzen, ez zuen hondamendi ikaragarri hura ezagutu. Eta, egia esan, bihotzez pozten naiz. **Izan ere, nahiz eta** Lizardi bezalako poeta bikain bat hain gazterik hiltzea alde batetik penagarri **den**, harentzat, hain gizon zuzen eta fina zen harentzat, are penagarriago eta minberagarriago **izan zitekeen** handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria».

Testu-antolatzaileek aukera polita eskaintzen dute estrategiez jabetzeko. Horregatik plazaratu genuen lehenik TAEE, eta horregatik gogoratzen ditugu HOEE honetan.

2.4. Mintzagaia eta galdegaia

Mintzagaiaren egitekoaz jabetzeko, ondo datorkigu euskal gotzainek 1998an plazaratutako idatzia baliatzea. Honela dio euskaraz, erdaratik itzulita (Euskal gotzainak, 1998: 14-15):

«Behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik, piztuerako Pazkoa ospatzean. Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espirituean eta betiereko ospetan. Mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. Munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezere eta inoren esklabo izan gabe. Lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz».

Jatorrizko testuan, hasiera-hasieran zegoen mintzagaia; gero, esaldi baikoitza aditzarekin hasten da, mintzagai hura gogoratuz. Horrek egiten du zati osoa irakurterraz. Hori kontuan ez hartzeak zailtzen du euskal itzulpena lehen irakurraldian ulertzea.

«**Celebrar la Pascua de la resurrección** es mirar con el corazón abierto de par en par a la vida eterna esperada como la vida definitiva y verdadera. **Es** reconocer el amor inmenso de Dios que nos asocia a su vida espiritual y a su gloria eterna. **Es** sentirse mayor y más importante que todas las cosas de este mundo. **Es** recuperar la libertad para usar de todo lo que hay en el mundo con sabiduría, sin ser esclavo de nada ni de nadie. **Es** recibir el don de ayudar a vivir a los demás en el gozo anticipado de la comunión universal».

Horiek kontuan izanik, erraz egoki daiteke euskal testua:

«**Piztuerako Pazkoa ospatzean**, behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik. **Eta** Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espirituean eta betiereko ospetan. **Eta** mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. **Eta** munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezere eta inoren esklabo izan gabe. **Eta** lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz».

Izan ere, testua ez da esaldi-pilaketa: esaldi zuzenen pilaketak ez du testu egokia bermatzen.

Antzeko ondorioak ditu –orain esaldi barruan– galdegaiarena gaizki ulertu izanak eta gaizki ulertzen jarraitzeak. Izan ere, galdegaiak, berez, intonazioarekin du zerikusia eta ez hitz-ordenarekin.

Esaterako, honela ere eman daiteke aurreko testua:

«Piztuerako Pazkoa ospatzea **da** begira jartzea, bihotza zabal-zabalik, behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera. **Da** aitortzea Jainkoaren neurrigabeko maitasuna; Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualetan eta betiereko ospean. **Da** sentitzea mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago. **Da** berreskuratzea munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna, ezeren eta inoren esklabo izan gabe. **Da** hartzea lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina, denen elkartasuna aurrez gozatuz».

Bestalde, honen eskutik aurki diezaiokegu irtenbidea hitz-ordenaren beste arazo bati. Berehala landuko ditugu SOA (subjektua, osagarriak, aditza) eta SAO (subjektua, aditza, osagarriak) ordenak.

2.5. Erlatibozko esaldiak

Oinarritzat hartuta euskal gramatikek erlatibozko esaldiez diotena, mezezi du bereiztea erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak.

Esaterako, honela hasten da Euskararen Aholku batzordearen adierazpen bat (Euskararen Aholku batzordea, 2001):

«Euskararen lur-eremu guztietako eta pentsaera eta lanbide askotako ordezkariak osaturiko Euskararen Aholku Batzorde honek, bere aurreko guztiek bezala, ahalegin handia egin du euskara guztion ondasuntzat hartua, zaindua, lagundua eta biziberritua izan dadin».

Itzulpenak ez zuen kontuan hartu zer-nolako tartekia (erlatibo ez-murrizgarria) zegoen jatorrizko testuan:

«Este Consejo Asesor del Euskera, *formado por personas de diversas ideologías y profesiones que representan a todos los ámbitos territoriales de dicha lengua*, ha realizado un gran esfuerzo, al igual que los consejos

que le antecederon, para que el euskera se considere un bien común y como tal sea conservado, apoyado y fortalecido».

Frantses testuan ere argi dago tartekia (ingelesezkoan ere bai):

«Ce Conseil Consultatif de l'Euskara, composé par de personnes aux idéologies et professions diverses qui représentent tous les territoires de cette langue, a réalisé un grand effort, à l'instar de tous ses prédécesseurs, pour que l'euskara soit considéré comme un bien commun, et en tant que tel soit conservé, appuyé et renforcé».

Euskarara egoki itzultzeko, besteak beste, estrategia zahar bat erabil zitekeen:

«Euskararen Aholku Batzorde honek, zeina osatua baita euskararen lur-eremu guztietako eta pentsaera eta lanbide askotako ordezkariak, ahalgin handia egin du, aurreko guztiak bezala, euskara guztion ondatsuntzat hartua, zaindua, lagundua eta biziberritua izan dadin».

Dena den, badaude beste irtenbide batzuk. Esaterako, hona hemen beste adibide bat:

Grand Palmier plazaren erdian bere jira guztian Pariseko parke batean gaizki emango ez zuten banku zuri batzuk zeuzkan palmondo lerden bat zegoen.

Zuzena da esaldia, baina ez egokia. Baina ez da benetakoa ere. Honela idatzi baitzuen Bernardo Atxagak, problemaz ohartuta (Atxaga, 2009: 20):

«Grand Palmier plazaren erdian palmondo lerden bat zegoen, Pariseko parke batean gaizki emango ez zuten banku zuri batzuk zeuzkana bere jira guztian».

Azken batean, kontua da problemaz jabetu eta estrategia egokia erabiliz aurkitzea irtenbidea.

2.6. Bi aukera: SOA eta SAO

Batzuetan, galdetu ohi da: zer hitz-ordena da zuzena (eta egokia), SOA (subjektua, osagarriak, aditza) ala SAO (subjektua, aditza, osagarriak).

Biak dira zuzenak eta biak izan daitezke egokiak.

Kontua ez da bietako bat onetsi eta bestea gaitzestea (SOA ala SAO), baizik biak erabilgarriztat hartzea (SOA eta SAO).

Dena den, beti komeni da bereiztea testu bakoitzaren izaera. Kontakete-tan, esaterako, natural-natural erabili ohi da aditza aurretik. Adibidez (Atxaga, 2009: 17):

«Chrysostomek erriflearen morroiloari **tira zion**, eta kargadorea **atera. Kokatu zuen** hamabigarren kartutxoa, **sartu zuen** berriro kargadorea, **eraman zuen** arma sorbaldara, **apuntatu zion** berrehun bat metrora zegoen tximu bati, **jaitsi zuen** arma, eta **galdetu zuen**:

– Zenbateko bidea egin dezake balak?»

Baina hitz-ordenak, berez, ez du egokitasuna bermatzen. Esaterako, honako azalpen honetan:

«Prozedura summarisimoa auzi-gaiaren urgentzia edo presagatik eta beronen munta txikiagatik, edota ekintza kriminalaren astuntasunagatik edo *in fraganti* harrapatua izateagatik legeak izapidegintza txit laburra seinalatzen dion judizioa da».

Honela egokitu zuten IVAPekoek, SOA ordenaren baitan (IVAP, 2005: 14):

«Prozedura summarisimoa judizio bat da, tramite laburrekoa. Honako kasuetan ezartzen da: auzia presaz erabaki behar denean eta txikia denean, edota ekintza kriminala astuna izan eta auziperatua *in fraganti* harrapatu dutenean».

SAO ordena ere tarteka zezaketen:

«Prozedura summarisimoa da judizio bat, tramite laburrekoa, eta ezartzen da auzia presaz erabaki behar denean eta txikia denean, edota ekintza kriminala astuna izan eta auziperatua *in fraganti* harrapatu dutenean».

Horiek horrela, orain esanahi bete hartzen du Mitxelenak Arantzazuko txostenean idatziak (Mitxelena, 1968: 219):

«Sartaldeko hizkuntzarekiko prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondotik, jakina, goragokorik aipatu gabe. Era berean, hainbeste ez bada ere, geure hizkuntza.

Ibilaldi horiek hizkuntza, edozein hizkuntza, arinago, zaluago, malguago bihurtu dute. [...] Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik».

Edo (Mitzelena, 1968: 218):

«Lege zaharrei eginahalean eustea da, noski, Euskaltzaindiaren eginbidea eta ez du amorerik emango ezinbestean baizik. Euskal autore gailenak ditu eredu eta, haiei buruzko iritziak denborak gutxi edo gehiago aldatzen baditu ere, badu hor oinarri sendoa».

Esaterako, SAO ordena tartekatu zuten Jean Haritschelharrek eta Pello Salaburuk, elkarrekin hitzaurre bat idatzi zutenean, euskaltzainburu eta EHUko erretore zirela (Haritschelhar & Salaburu, 1999):

«XX. mendeak euskararen alorrean ezagutu ditu bi hizkuntzalari haundi, biak euskaltzainak eta biak unibertsitateko katedradunak. Bietarik gazteena, euskalduna, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Koldo Mitxelena izan da, tesia irakurri zuenetik, zinezko maisua bai euskal ikerketetan eta bai Euskaltzaindian. Haren obra publikatua izana da, idatzi dituen liburuak eta artikulua baliatuak dira edozein tesitan mundu zabalean.

Zaharrena, René Lafon, sortu zen Merignac hirian 1899-an. Frantziako eskola nagusietan estudioak eginik [...] filosofia irakasle izana da Alençoneko, Pauko eta Bordeleko bigarren mailako ikastetxeetan. Pauen bizi zelarik, Vendryes hizkuntzalariaren aholkuari jarraikiz, oporrak pasatzen zituen Larreñe Zuberoko herri ttipian euskara ikasi nahiz».

Ordena bera erabil daiteke (erabili ohi da):

- Testu klasikoaren itzulpenetan,
- ahozko testuetan,
- esateko sortutako testuetan,
- herri-literaturan,

- definizioetan-eta,
- literaturan,
- aditz deklaratiboekin.

Eta betiere funtsezkoa da gauzak ez nahastea. Esaterako, *Marijane kontaxan* liburuan dugu adibide esanguratsua (Minaberry, 1998). Bertan, bi bertsiotan datoz Marijane Minaberryk idatzitako herri-ipuinak: eskuineko orrialdeetan, egileak idatzi bezala; eta ezkerrekoetan, Juan Kruz Igerabidek egokituta. Aurkezpenean esaten zaigunez, «Ipuina eskuin aldeko orrian doa idazlearen euskalkian. Eta ezkerrekoan, aldiz, euskara batuan, Juan Kruz Igerabidek egokiturik» (9. or.).

Halaxe da: egokipen-lana egina du Igerabide idazle finak. Baina, egilearen euskalkitik batura aldatu ez ezik, doinua ere aldatu die hainbat esaldiri, jatorrizko SAO ordena SOA bihurtuz. Hala, lehen ipuinaren hasieran, dio Minaberryk (11. or.): «Izar Xuri emana zioten izena, kopetan bazuelakotz ile xuri puxtuka bat». Eta Igerabidek (10. or.): «Izar Xuri emana zioten izena, kopetan ile xerlo zuri bat zuelako».

Baina, kontuz: ordena-aldaketak ez du zerikusirik euskara batuarekin. Ez dezagun orain euskara batuaren izenean egin, jakinaren gainean ala ez, lehen garbizaletasunaren izenean egina.

2.7. Laburbilduz

Baina beti osotasun bat da testua, esaldi solteen pilaketa baino gehiago, hainbat zatiren batuketa baino haratago; eta elkarrekiko lotura estuan daude haren elementu guztiak, nahiz eta HOEE liburuan banan-banan landu diren.

2.8. Bibliografia

HOEE n, bi atal ditu bibliografiak: lehenengoan, liburuan zehar aipatutako lanak biltzen dira; bigarrenean, adibideen iturriak (guztira, 59 iturri eta 101 adibide).

Eranskina

Euskara idatziaren auzia, sei puntu eta eranskin batean

Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa lanaren oinarrian dago, funtsean, Koldo Mitxelena eta Luis Villasanteren zenbait lan; esaterako, *Euskararen auziaz* (Villasante, 1988). Era berean, izenburu horren harira laburbil ditzakegu bai zer den gure lana, bai zer bide egin duen euskarak XX. mendearen hasieratik gaurdaino, sei puntu eta gehigarri batean.

Hona hemen, labur-labur.

1. Euskara batua egin gabe dago. Eta egin gabe egongo da, arau guztiak eman ondoren ere

Andres Urrutiak idatzia da, hain zuzen, HOEEren aurkezpenean (Urrutia, 2011: 9-10):

«Behinola ondutako euskararen batasuna, askoren ustez, zerbait egina da eta, nonbait, betiko finkatua, hizkuntzak aldaezinak balira bezalaxe. Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak, aitzitik, euskararen batasuna bestela ikusten du. Hain zuzen ere, etengabeko ibilian dabilen hizkuntzaren barnean. Oinarriak jarri baziren ere, oraintxe ari da mamitzen eta gauzatzen oinarrioren garatzea eta egiaztatzea, oinarri haiek uneoro ezartzen baitira, gizarte garaikide batek dituen hizkuntza-eskakizunak aintzat hartu eta horiexei erantzun aproposak eman behar zaizkienean».

2. Hitz-ordena: euskararen arazo nagusia

Luis Villasantek idatzi zuen 1988an (Villasante, 1988: 142), eta behin eta berriro gogoratu ohi dugu (Corpus batzordea, 2011: 15):

«Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena».

3. Arazoaren ondorioak

Bi kaltetu nagusi ditu euskararen arazo nagusiak: irakurlea eta idazlea.

Irakurlea (Zubimendi & Esnal, 1993: 220):

«Galdera batzuk, bidenabar:

- Noiz arte segi behar du nolabaiteko euskal idazleak gogaikarriro idazten?
- Noiz arte segi behar du euskal irakurleari eta bere buruari kalte egiten?
- Noiz arte jasan behar ditugu argitalpen amorragarriak?
- Noiz arte segi behar dugu asmo onez eta jakite gaiztoz idatzitako zaborra irensten?

Denok ere badakigu zer den «norberak izan ez eta besteei ematen diena»: lotsa».

Irakurlea ikasle denean (Esnal, 1997: 260):

«Zilegi izango ahal zait zarauztar guraso biren hitzak aipatzea!

D ereductan eskolatzen ari dituk gure seme-alaba biak: bata BBB-ko 3.ean eta bestea 1.ean. Eta sinestu nahi al didak, aizak, biek, OHO osoa erabat euskaraz egin eta gero, eta etxean, kalean eta eskolan euskaraz bizi izanda, errazago irakurtzen dutela erdaraz euskaraz baino, nahiz eta erdaraz hala moduz mintzo, tamalez?

Andu Lertxundirena da bigarrena. Alaba etorri zaio unibertsitatetik, Platonen testu baten iruzkina egiten lagunduko al dion esanez. Platonen testua euskaraz. Alabak ulertzen ez. Aitak ere ez. Anduk bere liburutegira jo behar, erdal testuaren bila. Platonen testua aurkitu, irakurri eta orduan ulertu. Eta alabari aditzera eman. Eta alabak orduan: «Aita, zertan ari gara?»».

Idazlea (Lertxundi, 2009: 24; Corpus batzordea, 2011: 102):

«Indarrik banu, pozik aldatuko nuke euskal perpausa. Arindu esan nahi dut. Agian, irauli ere esan beharko nuke. Esaldiak eraman behar ninduke ni, eta ez nik bera. Nire zerbitzuan behar luke egon, ez nuke denbora guztian zalantzaz ibili behar hizkuntza hegemonikoetako idazleak lasai peto dabiltzan bideetan. Esaldiak bizkortu, lexikoa garbitu, arin-arin ibili perpausetik perpausera, esaldien arteko loturak freskatu...

Behin eta berriro asmatzen ibili beharrak baditu abantailak. Era-gozpenak ere bai: ikaragarri nekatzen du. Idazten duzun esaldi bakoi-tza beste gailur konkistatu bat balitz bezala ospatzeko, mendizale handia izan beharra dago».

4. Arazoaren arrazoiak

Bi motatako erroak ditu arazoak: historikoak eta gaur zabalduak dauden usteak.

Arrazoi historikoez, argi mintzatu zen Luis Villasante, euskaltzainburu zela, besteak beste Altuberen *Erderismos* liburuaren atarikoan (Villasante, 1975: X):

«Euskara idatziaren tradizioa ez da, behar den neurrian, aztertua eta kontuan hartua izan. Gure idazle zaharrek, euskaraz idazteko behar den tresna, egokitua eta paratua eman ziguten. Baina ondoren etorri ziren gramatikalariek haien lana onartu, findu eta osatu behar-rean, madarikatu egin zuten, gaitzetsi. Orduan haustura bat gertatu da, eta hori hizkuntzaren kaltetan izan da».

Haustura horrek jota utzi zuen euskara: «inorarik gabe, besoz eta zangoz katigatuta» (Villasante, 1976: XV); edo, bestela esanda, idatzirako bi traba larri areagotuta: atzerakarga eta pausaldiak markatzeko baliabide gutxirena (Zubimendi & Esnal, 1993: 171-176). Izan ere, eta hain zuzen, traba horiez ohartu ziren idazle klasikoak eta horiek arinduz moldatu zuten euskal prosa.

Horrekin batera, beharrezkoa da salatzea gaur indarrean dauden bi uste oker (Corpus batzordea, 2011: 16):

«Euskal gramatikari buruz, bi uste oker bezain gaizto daude euskaldunon artean zabaldua: batetik, arautzen duena baino gehiago arautzen duela eta, bestetik, zenbait hizkuntz baliabideren erabileran [...] nahikoa dela arau gramatikalak betetzea».

Dena den, kontuan izan behar da zer esan nahi duen *gramatika* hitzak testuinguru horretan: gramatika arauemailea; ez, beraz, deskribatzailea (Corpus batzordea, 2011: 16).

Bi uste gaizto horiek nabarmenak dira, esaterako, galdegaiari buruz eta SAO (subjektua, aditza, osagarriak) eta SOA hitz-ordenak direla-eta.

Galdegaiari buruz (Corpus batzordea, 2011: 76):

«Argigarria da Euskaltzaindiaren batzorde batean gertatua. Bilera batean, sutsu hitz egin zuen euskaltzain urgazle batek galdegaiaren legearen alde. Barre ere egin zuen Iparraldeko euskaldunen kontura. «Hauek –esan zuen, Iparraldeko batzordekide eta euskaltzain osoa seinalatuz–, hauek ez dute galdegaia bereizten». Handik aurrera, bi urte osoan zehar, SAO ordenan idatzi zituen idazkariak akta guztiak. Eta, ohi bezala, ozen irakurtzen zuen, bilera bakoitzaren hasieran, aurreko bileraren akta. Apenas ohartu zen inor SAO ordenaz. Ez, behintzat, galdegaiarena hain bereganatua izan eta horren legearen alde sutsuegi mintzatu zen euskaltzain urgazlea».

SAO eta SOA hitz-ordenak direla-eta (Corpus batzordea, 2011: 97):

«Funtsezkoa da gauzak ez nahastea. Esaterako, *Marijane konta zan* liburuan dugu nahasmenduaren adibiderik nabarmenena (Minaberry, 1998). Izan ere, bi bertsiotan datoz liburuan Marijane Mina-

berryk idatzitako herri-ipuinak: eskuineko orrialdeetan, egileak idatzi bezala; eta ezkerrekoetan, Juan Kruz Igerabidek egokitu bezala.

Aurkezpenean esaten zaigunez, «Ipuina eskuin aldeko orrian doa idazlearen euskalkian. Eta ezkerrekoan, aldiz, euskara batuan, Juan Kruz Igerabidek egokiturik» (9. or.).

Halaxe da: egokipen-lana egina du Igerabide idazle finak. Baina, egilearen euskalkitik batura aldatu ez ezik, doinua ere aldatu die hainbat esaldiri, jatorrizko SAO ordena SOA bihurtuz, hain zuzen. Hala, lehen ipuinaren lehen esaldian, dio Minaberryk (11. or.): «Izar Xuri emana zioten izena, kopetan bazuelakotz ile xuri puxtuka bat». Eta Igerabidek (10. or.): «Izar Xuri emana zioten izena, kopetan ile xerlo zuri bat zuelako».

Gure aldetik, argi esan nahi genuke: ordena-aldaketak ez du zerikusirik euskara batuarekin. Are gehiago: ez dezagun orain euskara batuaren izenean egin, jakinaren gainean ala ez, lehen garbizaletasunaren izenean egindakoa».

Dena den, usteak uste, baliagarriak dira gaurko testu asko, zuzenak eta egokiak diren neurrian.

5. Irtenbideak, epe laburrera: estrategiak

Euskaltzaindia, 1968an, euskararen arazo larri horren jakitun zen. Eta aurre egin zion. Horren erakusle da, esaterako, Koldo Mitxelenak Arantzazuko biltzarrerako prestatutako txostena; hain zuzen, joskerari eskaini baitzion azken atala.

Eta, arazoaren jakitun izanik, irtenbidea ere aurreikusi zuen Mitxelenak. Txostenak ez du aipatzen *estrategia* hitza; baina bi pasartetan bada kontzeptuaren itzalik.

Mitxelena 1968: 219 (Corpus batzordea, 2011: 18):

«...euskal prosa arruntaren izatea, egoera eta huts-beteak aztertu nahi genituzke, «gramatikatasunean» landaturik baina «gramatikatasun» soilean oinak itsasten ez zaizkigularik».

Horixe da estrategien eremua: gramatika-arauek libre uzten dutena. Ere-mu zabal eta handi horretan mugitzen da idazlea. Hor hartzen ditu erabakiak, testu egokiak sortzea helburu.

Mitxelena 1968: 219 (Corpus batzordea, 2011:20):

«Hitz-ordenaz eta aurkitu diren legeak ez dira idazlea estekatzeko kateak, honen kemenak gehi ditzaketen lanabesak baizik, hitzen indar ezkutua nabarmenduz. Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, gaitz betetzen: hizkuntzari bere burua menderatuz, hizkuntza menderatu, hizkuntza-legeen lokarriak eta trabak, airea hegaziarentzat bezala, sostengu eta laguntza bihur daitezten».

Hain zuzen, kontzeptu horiek esplizitu egin, landu eta benetako testuei aplikatuz plazaratu ditu Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak bi azken emaitzak: *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*, 2008an; eta *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*, 2011n. Lehenengoan, testu-antolatzaileak baliatu zituen, estrategiez hitz egiteko; bigarreanean, estrategiak erabiliz lantzen du euskal hitz-ordena, batik bat hiru elementu landuz (testu-antolatzaileak, mintzagaia / galdegaia eta erlatiboeko esaldiak), betiere testuaren osotasuna gogoan duela.

Orain, idazleak du azken hitza, «gramatikasunean landaturik baina gramatikasun soilean oinak» itsatsi gabe; eta, jakina (ezinbestekoa baita hau), testu egokiaren kontzientziaren jabe ernea izanik.

6. Irtenbideak, epe luzera: tradizioa

Planteamendu horren harian, idazle bakoitzak bere estrategiak landuko ditu, eta estrategiak estilo bihurtuko dira, eta estiloek eskola egingo dute, eta eskolek tradizioa onduko dute.

Azken baten, ibilbide hori egiten ari zen euskara, euskalki banatan eta euskalkien artean, harik eta XX. mendearen hasieran etena gertatu zen arte.

Orain, eten hori gainditzea da guztion egitekoa, bata eta bestearen ekarriaz, lehengo eta azken urteotako lorpenen ildoan.

Gehigarria: Altube eta altubetarren egitasmoa

Orain arte, garbizalekerian ikusi izan da, gehienbat, Altubek eta altubetarren mugimenduaren arima. Hori ukatu gabe, bestela ere azal daiteke: hain zuzen, euskararen arazoa bideratzeko egitasmo estrategiko gisa. Eta horrelaxe azaltzen du HOEE liburuak, zazpi pasarte baliatuz. Villasanterenak dira hiru, eta gainerako laurak Txomin Agirre, Orixe, Mitxelena eta Patxi Altunarenak (Corpus batzordea, 2011: 22-25).

Orain, merezi du hori zertxobait osatzea, hiru puntu txiki erantsiz.

Lehenengoa. Funtsean, antz handia dute Altube eta altubetarren egitasmoak eta gaurko euskal gizartearenak, Euskaltzaindiarena bera barne, euskararen hizkuntza-normalizazioaz. Azken batean, abiaburu bera dute: euskararen hizkuntza-arazoak.

Esan gabe doa: elkarrekin estu lotuta eta etengabeko elkarreraginean ulertu behar dira euskararen hizkuntza-normalizazioa eta gizarte-normalizazioa.

Bigarrena. Horrelako egitasmo handi bat dela-eta, kontuan izan behar da hiru aldi izan ohi dituztela: 1) maisu eta aitzindarien aldia, 2) jarraitzaileen aldia eta 3) gizarteak egitasmoa hezurmamitu eta bereganatzen duen aldia.

Gurera etorri, lehen aldia, Altubek eta ingurukoek gauzatu zuten. Bigarrena, haien jarraitzaile sutsuen aldia da (sarritan, maisuak baino sutsuagoak izan ohi dira jarraitzaileak). Hauek zioten, besteak beste, aditzak beti esaldiaren atzean joan behar duela; eta azken muturrean bada, hobe. Oraindik ere oso zabaldua dago ustea eta, okerragoa dena, praktika. Azkenik, hirugarren aldian kokatu beharko liriteke Mitxelena, Villasante eta inguruko lan eta ahalegin handia. Azken batean, egitasmo hura bideratzera zegoen zuzendua: gehiegikeriak salatzea eta ekarpenak onartu eta baliatzera.

Hirugarren puntua. Gure bi liburuak, funtsean, horixe besterik ez dira: Mitxelena, Villasante eta inguruko lanen garapena; edo, bestela esanda, euskararen hizkuntza-normalizazioak azken ehun urteotan eginiko ibilbidetaren jarraipena.

Villasante Euskararen Ikergunean gaudenez, merezi du haren pasarte batez amaitzea. Honela amaitzen du gernikarrak, hain zuzen, Altuberren *Erderimos* liburuari eginiko hitzaurrea (1975: XII):

«Esanik dago honekin euskal sintaxiaren eremu hau berrikusi eta berrestudiatu beharrean dela.

Bitartean, Altube jaunaren liburua berrargitaratzen dugu probetxugarri izan daitekeelakoan. Muga edo itzal batzuk izan arren (eta uste dut leialtasun osoz azaldu ditudala), baditu liburu honek alderdi on asko eta ohar zehatz eta jakingarriak euskal joskerari buruz».

Euskaltzaleok dugu azken hitza.

Bibliografia

1. Aipatutako lanak

AGIRRE, J.M. (1991): *Euskal gramatika deskriptiboa*. Bilbo: Labayru Ikastegia [bi liburuki].

———, (2009): *Itzulpen Estrategiak*. Oñati: Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea.

AMURIZA, X. (2010): *Euskara batuaren bigarren jaiotza*. Oiartzun: Lanku.

AREJITA, A. (zuz.) (2001): *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Lehenengo pausuak*. Bilbo: Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

———, (2005): *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Bigarren pausuak*. Bilbo: Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

ARISTEGIETA, X. (2009): «Euskarazko testuen komunikagarritasun-problema larriak». *Senez* 37: 103-141.

CANALE, M. & SWAIN, M. (1980): «Theoretical bases of communicative approaches to second language teaching and testing». *Applied Linguistics* 1: 1-47 [Gaztelaniaz: «Fundamentos teóricos de los enfoques comunicativos. La enseñanza y la evaluación de una segunda lengua». *Signos* 17: 54-62; 18: 78-89, 1996].

CORPUS BATZORDEA. EUSKALTZAINDIA (2008): *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, (2011): *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ESNAL, P. (1997): «Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea». In ASKOREN ARTEAN: *Unesco. Linguaŕax. Hizkuntza politikei buruzko nazioarteko mintegia*. Bilbao: Unesco Etxea: 257-261.

———, (2002): «Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa». *Hizpide* 51: 19-33.

———, (2009): *Testu-arkitektura eta Gramatika, ekintza komunikatiboaren baitan*. Donostia: HABE [Hizpide 71].

GOENAGA, P. (1978): *Gramatika bideetan*. Donostia: Erein.

GRAMATIKA BATZORDEA. EUSKALTZAINDIA (1987): *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I (Eranskina)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, (1990): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*, Bilbo, Euskaltzaindia.

———, (1991): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, (1993): *Euskal Gramatika Laburra: Perŕaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, (1994): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IV (Juntagailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, (1999): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko perŕausak-1)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, (2005): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-VI (Mendeko perŕausak-2)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

HIDALGO, V. (1994): *Hitzen ordena euskaraz*. Doktore-tesia [<http://www.inguma.org>].

———, (2002a): «Erlatibo hautsiak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (I)». *Fontes Linguae Vasconum* 89: 27-80.

———, (2002b): «-en... erlatibo aposatuak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (II)». *Uztaro* 42: 17-83.

———, (2003): «Zein (eta Bait-) erlatiboak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (III)». *Fontes Linguae Vasconum* 92: 19-56.

———, (2004): «Izen ardatz determinatugabeen ondoko erlatiboak euskaraz. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (IV)». *Gogoia* IV 1: 121-174.

———, (2005a): «Eskuinetiko erlatiboak euskaraz, izen ardatzaren ondoren (ere) hedatzen direnak (eta V). Ikuspegi orokorra». *Fontes Linguae Vasconum* 98: 79-105.

HIDALGO, B. (2005b): «Erlatibo aukerak euskaraz. Ikasi eta irakatsi». *Hizpide* 59: 3-60.

KALTZAKORTA, M. (1997): «Erdarazko relatibo esplikatibo mota bat euskaratzen». *Uztaro* 22: 59-67.

LERTXUNDI, A. (2009): *Eskarmentuaren paperak*. Irun: Alberdania.

MITXELENA, L. (1968): Txostena. *Euskera* 13: 203-219. [Era berean: MITXELENA, Koldo (1988): «Euskararen batasun bideak». In *Euskal idazlan guztiak* VII. Euskal Editoreen Elkartea: 135-153.]

OSA, E. (1990): *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.

URRUTIA, A. (2011): «Estrategiaz bigarrenez». In CORPUS BATZORDEA. EUSKALTZAINDIA: *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia: 9-10.

VILLASANTE, L. (1975): «Hitzaurre gisa». In ALTUBE, Sebero: *Erderismos*. Bilbo: Indauchu: V-XII.

———, (1976): *Sintaxis de la oración compuesta*. Oñate: Editorial Franciscana

———, (1988): *Euskararen auziaz*. S.l.: s.n.

ZUBIMENDI, J. R. & ESNAL, Pello (1993): *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ZUBIRI, I. & ZUBIRI, E. (1995): *Euskal Gramatika osoa*. Bilbo: Didaktiker.

2. Adibideen iturriak

ATXAGA, B. (2009): *Zazpi etxe Frantzian*. Iruñea: Pamiela.

EUSKAL GOTZAINAK (1998): *Exhortación pastoral de los obispos de Pamplona-Tudela, Bilbao, San Sebastián y Vitoria. Cuaresma - Pascua de resurrección / Iruñe eta*

Tutera, Bilbo, Donostia eta Gasteizko gotzainen artzain aholkua. Garizuma - Piztuerako Pazkoa. Donostia: Idatz.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2001): «Guztion Euskarak guztion beharra du». [Adierazpena: 2001eko martxoaren 27koa.]

HARITSCHELHAR, J. & SALABURU, P. (1999): «Aintzin solas». In LAFON, René: *Vasconiana*. Bilbo: Euskaltzaindia: XV-XVI. [Iker 11]

IVAP (2005): *IVAPeko estilo-liburua*. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

LETE, X. (1974): «Xabier Lizardi edo poesia gailen». In ZENBAITEN ARTEAN: *Xabier Lizardi, olerkari eta prosista*. Oñati: Jakin: 11-43.

MINABERRY, M. (1998): *Marijane konta zan*. Donostia: Elkarlanean.

Mende erdi batez euskalgintzan irakasle, idazle eta itzultzaile gisa

MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier
Euskaltzaindiko Corpus batzordekidea

Gaur, Pello Esnalek bere *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* ekarpen bikainaz hitz egin digularik, eta abagune honetan hitz batzuk esatea proposatu zaidalarik, sakonera akademikoak alde batera utzi eta mende erdi batez neure idazle- eta itzultzaile-ibilbideari gaingiroki bada ere begiratu bat eman eta horretaz zuei hitz egitea erabaki dut.

Gauza berri gutxi entzungo duzue seguru asko baina, agian, nire azterketatxo honek gaurko euskararen ikuspegi ez berria baina zerbait desberdina izan dezazuen lagunduko dizue.

2011ko abenduaren 22ko zutabeari, Andu Lertxundik «Harriduraz» izenburua ezarri zion eta bertan, besteak beste, Elixabete Perezen hitzak aipatzen zituen, esanez, Koldo Mitxelenak gaur zer tresna ditugun ikusiko balu, harrিতuta geldituko litzatekeela. Eta gero oriotar zarauztartuak honela zioen:

«Datorren urtean hogeita bost urte beteko dira Errenteriako hizkuntzalaria hil zela. Orduetik, zenbat aldatu da nire lan egiteko era? Iraultza sekulakoa bizitzen –eta gozatzen– ari naiz orduetik ordura, eta iraultza teknologikoa guztiz mesedegarria gertatzen ari zaio euskarari. Mitxelena harrিতuko litzateke. Geuri ere pozñoa eragingo liguke –eta adore eman– aldian behin harrিতzeak».

Nik neuk mende erdi batez bizi izan dudan harrিতura eta pozño horretaz hitz egin nahi dizuet.

Euskera. 2012, 57, 3. 495-503. Bilbo
ISSN 0210-1564

50. hamarkadan nire ingurunean zeuden euskarazko irakurgaiak zenbartzeko eskuetako hatzak aski ziren: Lardizabalen *Testamentu zahar eta berriko kondaira*¹, *Maiatzeko lorak*, Irigoien Zumarragako parrokoak itzulitzako *Bizi*², Arantzazuko *Aste Santua* eta *Zeruko Argiaren* lehen aleak, eta herriko apaiak alde egitean oparitu zidan *Xabiartxo*³.

Jakina, Gabiria eta Eubako pasiotarregana ikasketak egitera joateak nabarmen aldatu zuen nire basamortu hura, baina aukera aberatsago hura ere aski mugatua zen.

1955-1970

Euskararen eta hizkuntzen munduarekin topo egiteko abagunea izan zen niretzat epe hura. Umandiren *Gramatica Vascarekin*⁴ astean hiru ordu euskara ikastea, aditza eta atzizkien ikaskuntza sistematikoa Larrarte eta Sarasola irakasleei esker, euskarazko idazkuntza eta haren zuzenketa, *Euzko Gogoa*⁵ eta 'Kuliska Sorta', *Gero*⁶ eta *Unamuno eta Abendats*⁷, bai frantsesa, latina, grekoa, ingelesa eta alemana ikastearen urteak ere. Geroago etorriko ziren esperantoa eta errusiera.

*Euskaldunak*⁸, *Barne-muinetan*⁹, *Urte Guziko Meza-Bezperak*¹⁰ obretako Orixe handiarekin ere topo egin nuen, miresmena eta kritika nahastuz (J.

¹ Lardizabal, F. J.:1908, *Testamentu zahar eta berriko kondaira*, Tolosa,

² Arami, M. M.,1951, *Bizi!* (itzul. D. Irigoien).

³ López-Mendizabal, I.,1925, *Xabiartxo*, Tolosa.

⁴ Urrestarazu Landazabal, A.»UMANDI», 1955, *Gramática Vasca*, Itxaropena.

⁵ EUZKO-GOGOIA, Guatemala, 1950. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Euzko-gogoa>

⁶ Aguerre y Azpilicueta, P., 1643, *Gero, bi partetan partitua eta berezia*. www.axularnet.com/web/gero.html

⁷ Mitxelena, S., 1958, *Unamuno eta Abendats*, Durango.

⁸ Ormaetxea, N., «ORIXE»; 1950, *Euskaldunak*, Itxaropena.

⁹ Ormaetxea, N., «ORIXE»; 1934, *Barne-muinetan*, Itxaropena.

¹⁰ Ormaetxea, N., «ORIXE»; 1950, *Urte guziko meza-bezperak*, Ascain.

Azurmendi), Ch. Dickens-en *A Christmas Carolen* itzulpena *Gabon-kanta bat* (Erein, 1990) bezala gerora Ereinek argitaratuko zuena, *Laiaketan* aldizkariko artikuluak eta Euskal Akademia.

Euskara baturik ez izateak nabarmen zailtzen zuen euskaraz idaztea. Azkuren *Promptuarium de la Lengua Vasca* erreferente garrantzitsua gertatu zitzaidan, bai eta Itun Berriko testuak ere, Kuliska Sortako irakurgetan batera (*Hamasei seme Euskalerriko, Gorrotoa Lege, Itxasoa laño dago...*).

Urte haietan topo egin nuen Txillardegi, Aresti, Mirande eta Xabier Kintana adiskidearekin eta abarrekin; orduan egin nuen Ermuko Zina eta *Batasunaren Kutxa*¹¹ liburuko proposamenei atxiki nintzaien, 1968an Euskaltzaindiak batasunerako lehen urratsak emango zituen etengabe bide hartatik ibiliz, etorkizuneko euskara lantzeko *Jakin, Anaitasuna, Zeruko Argia* eta abarretako artikuluetan. Ordura arteko idazkuntzaren bidea aski zalantzakorra zen, zeren eta idazle sonatuena lanetan aldaerak ugari samarrek baitziren eta kosta egiten zen orrialde bat hasi eta bukatu era koherentean egitea. Hiztegi-tako proposamenak, gaur ere erabat bateratuak ez diren arren, orduko askoz ugariagoak eta zalantzakorrak ziren (Azkue, Bera-Mendizabal, P. Mujika, Lhande...). Batzuetan eskaintza ugariak eta beste batzuetan gabezia nabariak, garbizalekeria. Berriki hor eman digu Xabier Amurizak¹² bere lana gaiak bizirik eta erantzun beharrean jarraitzen duela gogora ekarriz. Egia da, beharra detektatzea errazagoa gertatzen dela kasu bakoitzean erantzun egokia ematea baino, baina lehen urrats hori gabe nekez egingo da bigarrena.

Azkenik, Madril eta Zaragozan unibertsitate-ikasketak egiten ari ziren ikasle talde batentzat Gabiriako pasiotarren ikastetxe ohian antolatutako lehen euskal barnetegia ere aipatu beharra dut Juan San Martin eta biok orduan Gipuzkoan gobernadore zibila zen Oltra Moltó jaunari bisita egin eta baimena eskatuta. Manzanas polizia-burua erailtzeak salbuespen egoera ekarri zuen eta horrek eten zuen gure lehen ahalegin hura.

¹¹ Aresti, G; Kintana, X.; 1970, *Batasunaren Kutxa*, LUR.

¹² Amuriza, X.; 2010, *Euskara Batuaren bigarren jaiotza. Osoa, lehiakorra, nazionala*, Lanku.

1970-1980 hamarkada

Bilbon eta Algortan eman nituen urte haietan euskara irakasten taldeetan eta ikastoletan, *Anaitasunan* idazten eta *Iker* taldearen egitasmoa lantzen ari izan nintzen, *Saioka* ikasliburuak sortu zituen taldean euskararen arduradun gisa eta zenbait irakurgai itzultzen Iñaki Beobideren argialetxerako, jarduera hark isunen bat edo beste ordaindu behar izatea ekarri ziolarik. Garai hartakoak dira *Euskal historian zehar* eta *Euskera* 3, 4 eta 5 ikastoletan euskara ikasteko testuak, zentsuraren artazikadak jasandakoak. A. Berriatua eta *Anaitasuna* aldizkaria erreferente garrantzitsuak gertatu ziren niretzat testugintza hartan, hizkuntza nazionalaren kontzientzia hartzeko. Gainera, Bizkaiko ikastoletan euskararen irakaskuntza mailakatzeko lanean aritu nintzen eta sortu berria zen Eusko Kontseilu Nagusiko langile bezala ere bai A, B eta D eredu sonatuak Arantzazun diseinatzen parte hartu nuelarik beste lankide batzuekin batera, Xahoren *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des basques*¹³ obraren modukoren batzuk gaztelaniara ere itzuliz.

Hain zuzen, Arrasaten antolatu nuen lehen itzulpen-mintegia J.R. Etxebarria eta X. Kintanaren laguntzarekin. Ez zen garai erraza izan 'erri-euskeraren' ta 'euskara batuaren' aldekoen artean sortzen ziren eztabaida eta gorabeherengatik ikastolen barrutian. Hamarkada horretan egin ninduten euskaltzain urgazle eta D eta B irakasle-titulurako azterketak kudeatzen aritu nintzen beste zenbaitekin. UEUn ere parte hartu nuen itzulpen-mintegiarekin eta bertan Telesforo Monzon izan nuen partaide suhar ekarpen interesgarriak eginez.

1977an argitaratu zen Joan Mari Torrealdaiaren *Euskal Idazleak Gaur*¹⁴ (Oñati), erakusleho bikaina gerra osteko urteetan euskarak emandakoaz jabetzeko. Urtemuga horretatik 1995 arteko ekoizpenaren berri, aldiz, *Euskal Kultura Gaur*¹⁵ izeneko bigarren liburu batean eman zuen Torrealdai berak ia hogeiki urte geroago, zer esanik ez, oraindik uzta joriagoa ageri dela orrialde haietan.

¹³ Xaho, A.; 1976, *Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos*, (itzul. X. Mendiguren B.) Txertoa.

¹⁴ Torrealdai, J.M.; 1977, *Euskal idazleak gaur*, Oñati.

¹⁵ Torrealdai, J.M.; 1995, *Euskal Kultura Gaur*, Oñati.

1980-1990 hamarkada

Juan San Martinek, Euskaltzaindiaren izenean, itzultzaile eskola bat Donostian sortzeko proposamena egin zidan eta horrek Algortatik Donostiara familiarekin hiriz aldatu eta bertan lan egitera behartu ninduen. Txillardegiren, Villasanteren eta abarren lanei esker, eta Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun abiatutako prozesuaren ildotik euskara gero eta batuago zegoen eta hori ezinbesteko baldintza zen itzulpengintzaren irakaskuntza modu eraginkorrean bideratzeko. Beraz, 1980ko udazkenean ireki zituen ateak Donostiako Arbideko Dorreak izeneko gunean itzultzaile-eskolak, gerora Martuteneko Eskola bezala ezagunago izango bazen ere izen hori zuen auzunean kokatu zelako. Goizero eskolak emanez eta asteburuetan ikastaroak eskainiz ia hamar bat urteko ibilbidea egin zuen eskola hark EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretan Elkarte) eta SENEZ aldizkaria jaioarazi zituen, gaurdaino jardun betean ari direnak. Zehar-bidez IVAP-HAEEko eskolaren sorrera ere eragin zuen eta pixkanaka 'Literatura Unibertsala' eta 'Pentsamenduaren Klasikoak' itzulpen-bilduma garrantzitsuen eragile ere izan zen, Deustuko eta Gasteizko campusean itzulpen-masterrak zenbait urtez emanez.

Parez pare, eta garai bertsuan, EITB eskola sortu zen Iñaki Beobideren gidaritzapean eta bertan euskarazko itzulpenaren eta esatari eta aktoreen euskarazko prestakuntzaren ardura ere izan nuen; horrek aukera aparta eman zidan batzen ari zen euskararen eta ahozkotatasunaren arteko loturez ohartzeko, eta eremu horretan zeuden egitekoez jabetzeko. Halaber, Hezkuntzako EIMAn lankide izateak ere modu berezian ireki zizkidan begiak euskararen kalitateari zegokionez eta ildo hartan eman beharreko urratsen kontzientzia hartzeko ere.

EITBren Eskolan, testu idatziak ez ezik ahoskatuak lantzea ezinbestekoa zenez, ahoskera, azentua, intonazioa eta abarren aurrean erabakiak hartzea beharturik aurkitu ginen eta hasieran idazteko nagusiki aldarrikatzen zen euskara batua besterik gabe hartzerik ez zegoela ikusi genuen eta laster ekin genion esatarien eta film-bikoizketarien eguneroko lana bideratzeko arauak bilatu eta ezartzeari Txillardegi eta beste zenbaiten ekarpenak eta, askotan, geure sena beste gidaririk gabe. Gerora Eimako IABen *Ahoskera* testua lantzean ikusi dudanez eta, berriki Mintzolan Julia Marinek emandako hitzal-

dian entzun dudanez, gaia zabalik dago eta oraindik beharko lukeen arreta eta lantzea ez dituela jaso aitor nezake.

1993an sortutako Ahoskera Batzordeaz ari dela, 1998an kaleratutako 87. araua: *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ)* izeneko txostena aipatzen du. Eta urte berean desagertu zela dio. Urte batzuk geroago, 2009an, 158. gomendioa kaleratu zuela dio: *Kanpoko leku-izenak euskaraz ahoskatzeko irizpideak*.

Euskaltzaindiaren webgunean eta, Iker egitasmoaren barruan, Fonetika eta Fonologia esparruan hau dio: «Arian-arian Akademiari aurkezten zaizkion premiei erantzutea da lantalde suntsikor honen zeregina». Julia Mariñen iritziz, arian-arian aurkezten zaizkion premiei erantzutearen zeregina duen talde suntsikor bat baino zerbait gehiagoren beharra sumatzen da sail honetan. Mintzola Fundazioan ikusten du aurrerabiderako itxaropen-brintza. Gainera erakunde horren eta Euskaltzaindiaren artean hitzarmena sinatu izanak itxaropen soila baino zerbait gehiagoren ekarpena egin dezakeela pentsarazten digu. Horrela EIMAKo IABekoen nahiak ere epe laburrean portu onera iritsi ahal izango dira, bai eta egunero lan-tresna horretaz baliatu behar duten milaka irakaslerenak ere.

Hamarkada honen erdi aldera ordenagailua gure artean agertzeak, eta haren garapenak, ekarpen kalkulazina egin zion euskararen munduari, lana errazteko ez ezik testuaren kalitatea hobetzeko ere bai, zuzentzaile ortografikoari esker. Hori guztia laster etorriko zen, ordenagailuz lagunduriko itzulpengintzaren hasiera baizik izan ez zena.

Villasanteren lehen ekarpen garrantzitsu batzuk, Euskaltzaindiaren lehen *Euskal Gramatika*, *Lehen Urratsak* liburukiak UZEIren hiztegiak eta Orotariko Euskal Hiztegiaren lehen liburukiak eman zizkigun garai horrek, eta euskal argitaletxe ugari nabarmen aberastu zuten euskarazko liburuen eskaintza.

1990-2000 hamarkada

Hamarkada hartan Interneten, posta elektronikoaren eta mugikorren erabilera nabarmen hedatu zen eta hark eragin erabakigarri eta neurtzen zaila dena izan du modu askotara euskararen ezagutzen eta erabiltzen.

Bestalde, euskararen kalitateari dagokionez Euskaltzaindiaren atergabe-ko lana daukagu Interneten eskuragai: Hizkuntza baliabideak: *Hiztegiak eta Corpusak*, Gramatika, Dialektologia, Onomastika, Literatura, Arauak, Euskararen sustapena, argitalpenen bertsio elektronikoak, eta, azkenik, Jagonet galde-erantzunak zalantzak argitzeko Euskaltzaindiaren zerbitzua. Ondo gogoan dut Miren Azkaratek eta biok zenbat aldiz errepikatu behar izan genuen Jagon Saisetrik Euskaltzaindiak Interneterako jauzia eman behar zuela, bai eta beste hizkuntza batzuetan garai bertsuan sortzen ari ziren testuen corpusak gurean ere egitea ezinbestekoa zela, nahiz eta ekimen hori nik nahi baino gehiago berandutu zen.

Hezkuntza Sailean diharduen EIMAKo Ikasmaterialen Aholku Batzordea aipatu nahi dut, EIMA berorrek aurretik abiatutako lana sakontzen lagundu duena zenbait lan-tresna argitaratuz eta euskal irakaskuntzako testuen zuzentasun eta egokitasuna zainduz. Aipaturiko Ikasmaterialen Aholku Batzordearen lanari esker, orain arte honako liburu hauek argitaratu dira: *Ortotipografia*, *Kalko okerrak*, *Letra larriak erabiltzeko irizpideak*, *Onomastika*, *Izen-zerrendak*, *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*, *Estandarizatu gabeko solasak...*, eta laster agertzeakoak dira *Ahoskera* eta *Puntuazioa* lanak ere, besteak beste.

Halaber, eta EIZIEren lanari esker itzulpen-memoriak eta ordenagailuz lagunduriko itzulpena burutzeko tresnak (ikus EIZIEren webgunean Itzulpen-memoriak eta Tresnak) nabarmen garatu dira hamarkada honetan eta horiek itzulpena egitea erraztu ez ezik hizkuntza kalitatea ere ageriki hobetu dute: *Xuxen* ortografia-zuzentzaileak, *Euskalbar* eta zenbait Corpusen ekarpenez ari naiz, nabarmen haziz doan euskarazko *Wikipedia* ez aipatzearren. Gure hizkuntza baino hiztun gehiago dituztenen aurretik goaz zerrendan, oraindik nabarmen hobetu eta aberastu beharrean bagaude ere.

Bestalde, *Gifami*, Gipuzkoako Foru Aldundiko itzulpengintza mintegia, EHU-UPVko *Ehulku*, *Ehutsi*, *Zio...* ekimenak eta antzeko beste askok nabarmen laguntzen dute hizkuntzaren kalitatea jasotzen eta hobetzen.

Azkenik, hiztegitik UZEI-Euskalterm, OEH eta EGLUren¹⁶ ildotik urrats sendoak eman dira hamarkada honetan eta hurrengoan burutzeko.

Bestalde, *Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua* (1998) sortzeak euskararen erabilera sustatzeko bi tresna garrantzitsu jendarteratzea ekarriko du hurrengo hamarkadan: *Bai Euskarari Ziurtagiria* eta *Euskararen Behatokia*, eta hurrengo urteetan euskararen baitan kontzientzia berpiztuz eta nabarmen eraginez. Hizkuntzaren oinarriko eraikuntza landu ahala, gero eta garbiago ikusi da testu egokiak prestatzeko eman beharreko pausoak zein diren, batez ere inguruko erdaren eraginpean ari den gure idazkuntzan, eta ildo horretatik etorri dira P. Esnalena bezalako ekarpenak. *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* (2008) *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* (2011), gramatikaren eremuak utzi eta estilistikaren zelaiak hasten direnetan behar-beharrezkoak direnak teknologia berriek zalapartaka idaztera bultzatzen gaituzten aroan. Horrelako gomendioak eta ezagutzak idazle on askok garai guztietan erakutsi badituzte ere, milaka pertsona bere buruan estandarizatzen eta normalizatzen

¹⁶ Euskaltzaindia; *Euskal gramatika lehen urratsak* (EGLU) Euskararen gramatika deskriptiboa da, hizkuntzaren datuak bildu nahi dituena. Tarteka Euskaltzaindiak eman dituen arauen berri ere ematen da, zeharka, baina, berez, ez da gramatika arauemailea, baizik deskriptiboa: hizkuntzaren datuak erakutsian uzten ditu, tradizioan oinarritutako lekukoetan, eta egungo euskalkien ezagutzan oinarriturik.

- *Euskal gramatika lehen urratsak. I* (PDF, 6,23 MB)
- *Euskal gramatika lehen urratsak. I, (Eraskina)* (PDF, 1,61 MB)
- *Euskal gramatika lehen urratsak. II* (PDF, 4,49 MB)
- *Euskal gramatika lehen urratsak. [I-II], (Gai aurkibidea)* (PDF, 634,81 kB)
- *Euskal gramatika lehen urratsak. III, (Lokailuak)* (PDF, 2,90 MB)
- *Euskal gramatika lehen urratsak. IV, (Juntagailuak)* (PDF, 2,97 MB)
- *Euskal gramatika lehen urratsak. V, (Mendeko perpausak-1, osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak, ondoriozkoak)* (PDF, 5,61 MB)
- *Euskal gramatika lehen urratsak. VI, (Mendeko perpausak-2, baldintzazkoak, denborazkoak, helburuzkoak, kausazkoak, kontseziozkoak eta moduzkoak)* (PDF, 5,61 MB)

Dokumentuak

- *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna* (PDF, 5,02 MB)
- *Morfología vasca* (PDF, 15,3 MB)
- *Euskal aditz batua* (PDF, 1,48 MB)

ari den hizkuntza batean eskolatzeak, eta gaurko bizimoduak testuak idaztea eta jendaurrean eraginkortasunez hitz egitea askori eskatzen dion garaiotan, inoiz baino hobeki txertatzen dira gure aurrerabide neketsuan. Beraz, gramatikaren mugetatik harago, estilistikaren alorrean ekarpenak egiteak ibilbide oso bat biribiltzea esan nahi du, herri-literaturaren azterlanarekin eta Esnalen erabilera estrategikoko bi ekarpenekin, azkenik, B. Atxagak maisuki gidatzen duen *Erlea* aldizkariarekin galdorra ezarriz.

Berriki galdu dugun eta seguru asko euskara batuaren alde beste inork baino ekarpen handiagoa egin duen Txillardegiri omenaldi xume gisa, *Huntax eta Hartax* (1976) saiakeran zioen harako hura gogorarazi nahiko nuke: «euskara gaitu, osatu, batu, gaurkotu, zorrotzu eta aberasten» eman ditudala neure urte gehientsuenak aldian aldiko beharrek eskatu didaten eta neure indar eta gaitasunak ahalbidetu nauten neurrian, eta orain neure 66 urteren gaindegitik atzera begiratzean harridura sentitzen dut euskararekin batera egin dudan ibilbidea begiestean, adiskide sentitzen ditut egiteko bikain horretan bidaide izan ditudan guztiak eta azken aldi honetan, Huhezi-Garabideren eskutik¹⁷ Abia Yala edo Hego Amerikako, hizkuntza gutxituen ordezkariet euskara batu eta gaurkotzearen gure esperientzia nolakoa izan den azaltzeko aukera izan dut, eta horretan jarraituko dut ahal dudan bitartean gure harridura eta poza beste batzuegan ere loratu dadin. Nire belaunaldiko askok, gutxi gorabehera antzera ikusten dugu euskararen ibilbide hau, baina badira gerora etorri diren beste belaunaldi batzuk, euskara batuaren baitan jaio direnak, eta batez ere horietan begira idatzi ditut lerro hauek nondik gatozen jakin dezaten eta guztion ahaleginarekin geroan noraino irits gintezkeen suma dezaten.

¹⁷ <http://www.garabide.org/euskara/huhezi-garabide-aditu-titulua/albisteak/hasi-da-garabidek-eta-huhezik-antolaturiko-hizkuntzen-berreskurapenerako-aditu-tituludun-maisutza>



Zenbait ohar euskarazko hitz-ordenari buruz¹

Algunas observaciones sobre el orden de las palabras en euskera

Quelques observations sur l'ordre des mots en langue basque

Some remarks on Basque-language word order

ARISTEGIETA OKIÑENA, Xabier

Nafarroako Parlamentuko euskarazko itzultzailea eta interpretea

Noiz jaso: 2013-04-30

Noiz onartua: 2013-07-09

¹ Honako artikulu honen parte handiena osatzen du, forman eta funtsean, orain dela urte eta erdi inguru prestatu nuen testu batek, Pello Esnalen «Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa» liburuaren argitalpena zela-eta Euskaltzaindiak 2012ko otsailaren 24an Donostian antolatutako izen bereko jardunaldi-rakoak. Ohartarazi nahi dut, nolana ere, hasierako testu hartan berridazketa ugari txertatu ditudala, batez ere hirugarren atalean, bai eta ideia berriren bat edo beste, eta interesgarriak iruditu zaizkidan adibide berriak ere. Hori guztia, abiaburuko testu hartako ideia nagusia gehiago indartzeko asmoz.

Artikulu honetan Pello Esnalen «Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa» liburuaren aztergaiaren inguruko ikuspegi pertsonal bat jasotzen da.

Euskarazko testuek euskaldunoi ulergarritasun-problema ematea alienatzailetzat jotzen du egileak, eta testuen komunikagarritasunaren ideia oinarri-oinarrizkoa azpimarratzen.

Gogoetagai hartzen da ea testuaren komunikagarritasuna testugilearen estrategien baitan bete-betean utzi beharreko kontua den ala gramatikak ere horretan zeresanik ba ote duen. Ildo horretatik, esaldien hitz-ordena ezartzeko irizpide gisa perpaus txertatu baten agerpena proposatzen du autoreak.

Halaber, atzerakargaren fenomeno laburki aztertu eta horren kasu batzuk zuzentzeko zenbait bide baliagarri proposatzen ditu.

Hitz-gakoak: alienazioa, komunikagarritasuna, hitz-ordena, gramatika, estrategiak, atzerakarga.

En este artículo se recoge una visión personal del libro de Pello Esnal «Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa». El autor percibe como alienante que textos escritos en euskera sean difíciles de comprender para los euskaldunes. Cree que debe primar la función comunicativa. Plantea si la comunicabilidad de un texto ha de basarse en su totalidad en las estrategias comunicativas del autor, o si la gramática también tiene algo que decir al respecto. De ese modo, propone la aparición de una oración subordinada como criterio para la fijación del orden de las palabras. Analiza a su vez la excesiva posposición semántica de las frases en euskera, las cuales se hacen entendibles sólo al llegar al final de la frase. Propone unas medidas para corregir dicho fenómeno.

Palabras clave: alienación, comunicabilidad, orden de las palabras, gramática, estrategias, postposición semántica.

Cet article montre une vision personnelle du livre de Pello Esnal "Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa". L'auteur considère aliénant le fait que des textes écrits en basque soient difficiles à comprendre pour les Basques. Il considère que la fonction communicative doit primer. Il se demande si la transmission d'un texte doit être basée entièrement sur la stratégie communicative de l'auteur, ou si la grammaire a aussi son mot à dire. Ainsi, il suggère la proposition subordonnée comme critère de fixation de l'ordre des mots.

Il analyse la posposition sémantique des phrases en basque, qui ne peuvent être comprises que lorsque l'on arrive à la fin de la phrase. Il propose certaines mesures pour corriger ce phénomène.

Mots-clés: aliénation, communicabilité, ordre des mots, grammaire, stratégies, postposition sémantique.

A personal vision of the topic of Pello Esnal's book «Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa» is recorded in this article.

The author considers the fact that Basque texts cause comprehension problems for Basque speakers to be a form of alienation and emphasizes the importance of the very basic notion of the comprehensibility of texts.

Whether a text's comprehensibility is a matter to be left wholly in the hands of its creator's strategies or whether grammar also has something to say on the topic is discussed. Following on from that the author proposes taking the presence of a subordinate clause as a criterion for establishing sentence word order.

In addition, the phenomenon of semantic postponement is briefly examined and a number of valid ways to correct such cases proposed.

Keywords: alienation, comprehensibility, word order, grammar, strategies, semantic postponement.

1. Sarrera. Alienazioa

Oso gustura irakurri dut Pello Esnalen «Hitz-ordena: erabilera estrategi-koa» liburua. Hitz-ordena euskarazko gaur egungo testuetan ebatzi gabeko komunikazio-problema izaki, pozgarria da ikustea gero eta ahots gehiagok egiten dituztela ekarpenak arazoari arrazionaltasunaren eta pragmatismoaren ildoetara jarraituz aurre egiteko, eta gero eta suspertuagoa dagoela halako kontzientzia bat, euskarazko testugintzak hitz-ordenarekin oraindik ere gaur den egunean askatu gabeko korapilo bat izateari buruzkoa. Korapilo bat, bai, zeinaren kalte-hartzaile bakarra gu geu baikara: irakurle eta/edo entzule euskaldunon komunitatea.

Euskaraz, izan ere, komunikagarritasunaren ikuspegitik hitz-ordena desegokiz eraturiko perpausak barra-barra aurkitzen dira, hala testu idatzietan nola emanaldi eta mintzaldi ezberdinetako esatariek irakurriak direnetan, eta hitz-ordena desegoki horren ondoriozko ulergaitzasunak zinezko koagulu suertatzen zaizkio komunikazio-zeregin eraginkor eta atsegina batek behar duen jario oztopogabeari.

Euskarazko testuak euskaldunontzat ulergaitzak eta are ulertezinak izatea alienatzailea iruditzen zait.

«Alienazio» hitza inorentzat ezezaguna ez den arren, agian komeni litza-teke zenbait hiztegiaren laguntzaz haren esanahia (edo, hobe, esanahietako bat) zehatz-mehaztea:

- *Lur Hiztegi Entziklopedikoaren* arabera, «alienazioa» honako hau da: «persona edo talde baten kontzientzia aldatzea, bere izatea kontuan hartuta espero zenaren kontrako erantzuna eta jokaerak azaltzera iritsiz».
- Espainiako Hizkuntza Akademiaren Hiztegiak honako adiera hau, besteak beste, ematen dio «alienación» hitzari: «proceso mediante el cual el individuo o una colectividad transforman su conciencia hasta hacerla contradictoria con lo que debía esperarse de su condición».
- Baina, agian, *Diccionario Esencial Santillana de la lengua española* da egoera hobekien islatzen duen irudia ematen duena: «estado por el que un individuo o colectividad, por diferentes presiones, experimenta un

cambio que le lleva a pensar y actuar de forma contradictoria con la imagen que poseía de sí y con los valores que sostenía».

Eta nire iritzia da euskarazko testuak erabiltzeko borondatea daukaten euskaldun askok erdararen batekoak erabiltzen dituztela eta, horrenbestez, beren sinesmenekiko kontraesanean jarduten dutela, hain zuzen ere, euskaldun alfabetatuak izan arren euskarazko testu horiek ezin ulertu hutsaren presiopean etsita. Eta hori, euskarazko testu horien egileek usu komunikagarritasunaren irizpidea zeharo atzendu dutelako eta ustezko jatortasunaren, ustezko gramatikaltasunaren eta bi horien konbinazio zehatza den gramatikaltasun jatorraren morroi ipini dutelako, ohartuki nahiz oharkabe-akritikoki.

Horregatik, nire ustez hizkuntzaren normalizazio soziala ezin da hartu hizkera komunikatiboki txukuna erdiestetik bereizitako langintza gisa. Aitzitik, bi helburu horiek estu elkarlotuta daude.

2. Gramatika eta estrategiak

«Gramatika» erreferente gisa hartu eta bertatik abiatuz «estrategia» ideia iraganarazten gaituen ikuspegi-aldaketa dago liburuaren muinean. Pello Esnalek liburu osoan interes bereziz azpimarraturiko kontzeptua da «estrategia», izenburutik bertatik hasita. Ideia nagusia da testugilearen erabakimenaren baitan geratzen dela, gramatikak baimentzen duen esparruaren estu-zabalaren mugapean betiere, eraginkortasun komunikatibo handiagoko edo txikiagoko adierazpideak hautatzea (hitz-ordenarekin zerikusia dutenak, liburuaren aztergaiari dagokionez), eta hautaketa horretan gauzatu litzatekeela testugilearen kasuan kasuko estrategia.

Alde batetik, gramatika. Bestetik, estrategia(k). Bereizketa zolia da, inondik ere. Horren arabera, guztiz gramatikala izan daiteke esaldi zehatz batean batere komunikatiboa ez den hitz-ordena bat: gramatikalki zuzena, estrategikoki okerra.

Alabaina, zilegi izan liteke galdetzea zer zentzu eta zer emankortasun izan dezakeen hitz-ordena antikomunikatibo bati oniritzia ematen dion grama-

tika batek; alegia, komunikagarritasuna arrotz zaion gramatikaltasun batek. Izan ere, hizkuntza bateko hiztunek elkarrekin egiazki komunikatzeko ez dutenez egitura antikomunikatiborik erabiltzen, egitura antikomunikatiboen berri ematen duen gramatika horrek, aldi berean, bizkarra ematen die, edo eman liezaieke, egiazki erabiltzen diren egitura komunikatiboetara eta horien irakaskuntzari.

Komunikagarritasunarekiko soraio den gramatika baten argitan behatuta, «estrategia» hitzaren anbiguitasunaren zantzuak ikusten hasten gara: alde batetik, eta autoreak berak esplizitatzen duenez, «estrategia» nozioak testugilearen burujabetasun halako baten ideia eskuratzen digu (zeinak, askatasun orok bezala, uztarturik erantzukizuna ekartzen duela oroitarazi behar baita); baina, bestetik, eta gramatikak jokamolde-ildo batzuk gehiago zehaztu ezean, estrategiak erabiltzera behartuta suertatzen den testugilearen babesgabetasunaren berri ere ematen digula ezin uka. Afrikako oihan batean zehar maparik gabe dabilen bidaiari baten kasuan bezala, orientazio-estrategiak praktikan jartzera behartuta egotea zirrargarria izan daiteke, propio bilaturiko esperientzia bat bada, edo, aitzitik, etsigarria eta atsekabezkoa, askatasun hori beharturikoa denean. Alegia, askatasuna izan ordez babesgabetasuna denean.

Nire ustez, gramatikari ahalegin bat eskatu behar zaio, komunikagarritasuna errazten duten aukerak gutxienez ere nabarmentzeko eta hura oztopenen dutenak, debekatu gabe, halako itzalpe edo bigarren maila batean uzteko. Alegia, gramatikaren esparrutik atera gabe, komenigarria litzateke zehaztapen-ahalegin bat egitea, hizkuntzaren erabileran jokamolde-ildo batzuk markatzeko eta, horrela, testuaren kalitatea (irakur bedi «komunikagarritasuna», oinarri-oinarrizko kontzeptua) ez dadin hain neurri handian izan testugilearen sorbaldaren gaineko zama bat, berak erabakitako unean uneko estrategien hain menpekoea (hain «artisansaiozko», euskarazko testuetan gaur egun horrenbeste aldiz gertatzen den bezala), baizik eta, ahal den heinean betiere, gramatika-arauen aplikazio automatikoago baten ondoriozkoa.

Alde horretatik, gramatika arauemaileak agian jaramon handiagoa egin beharko lioke gramatika deskribatzaileari.

Ondoko lerroetan, menturatuko naiz gorago aipatu dudan zehaztapen-ahalegin horri ekin eta zertzelada batzuk ematera, hori egin ahal izateko eskueran daukadan oinarri bakarretik: itzulpengintzan aritzeak ematen duen ikuspegi praktikotik. Eta jakinda ez dela falta izango adierazitakoaren salbuespenik.

3. **Hitz-ordenaren bi ereduak: bi aukera beregain eta paralelotzat jotzetik, bakoitzari bere erabileremua esleitzen dion ikuspegi integratzaile baterantz**

Liburuan Subjektu-Aditz-Objektu (SAO)/Subjektu-Objektu-Aditz (SOA) hitz-ordenek euskaraz izandako txandakatze historikoaren berri ematen zaigu, eta, zuhurtasun handiz, autoreak ohartarazten du bi eredu horiek baliagarriak direla, eta bakoitzak ez duela, bere horretan, testuaren txukuntasuna bermatzen.

Ados nago horrekin, baina, nire ustez, hori baino gehiago zehaztu beharra dago, eredu horien erabilerari buruzko teoria bat izan daitekeena eraiki arte.

Izan ere, eta jakina denez, euskaraz perpausak konplexutzen joan ahala, esanahiz aberasten joan ahala, SOA ereduak dugu problemak ematen dituen, informazio-kantitate oso mugatua da-eta aditzaren aurretik halako moduan pilatu daitekeena non esaldiaren osotasuna deskodetzeko problemarik ez den sortuko. Eta horren agergerri dira egileak liburuan jorratzen dituen adibideak.

Bestetik, oinarritzkoenak diren perpausetan, hau da, informazio laburra ematen duten perpaus bakunetan (*Ni Xabier naiz, Zuk goizean sagar bat jan duzu*, eta abar), badirudi zentzuzkoa dela SOA ordena jotzea euskararen berezkozat. Eta, hain zuzen ere, hurrenkera honetan du jokalekurik nabariena galdegaia aditzaren aurreko posizioak markatzearen legeak.

Horrenbestez, hizkuntzen bilakabidean perpaus konposatuaren agerpena perpaus bakunena baino geroagokoa bada, nire ustez eragozpenik gabe onar daiteke SOA litzatekeela, euskaraz, jatorrizko hitz-ordena. Baina «jatorriz-

koa», «hasierako» zentzuarekin; hots, perpaus bakunak perpaus elkartuen aldean jatorrizkoak liratekeen modu berean. Eta SAO litzateke perpaus konposatuak, zeinak «ez-jatorrizkoak» bailirateke, modu ulergarrian adierazi ahal izate aldera mintzamenak berak garaturiko eredia. Alegia, bereizketa kronologiko eta funtzional huts bat, eta ez ontasuneko edo txartasuneko parametroei jarraitzen zaien bat.

Azter dezagun orain xehekiago komunikazioaren bideragarritasuna ahalbidetze aldera SOA eredutik SAO eredurako iragate horretara behartzen duen esanahi-komplexutzea. Horretarako, har dezagun adibide bezala honako perpaus bakun hau:

– Nik ogia erosi dut.

Esaldi horretatik abiatuta, bi konplexutze-mota nagusi bereiziko nituzke, aditza aurreratzea zilegitzen eta are horretara behartzen dutenak:

a) **Elementu-pilaketa hutsaren ondoriozkoa.** Esate baterako, eta aurreko adibidetik abiatuta:

– Nik ogia, ura, tomatea, piperrak, komuneko papera, hortzetako pasta, Modenako ozipina eta perretxikoak erosi ditut.

Kontua ez da, soilik, aditza aurreratuz esaldia ulergarriago bihurtzen dela entzule edo irakurlearentzat, baizik eta esaldi-egilearentzat ere askoz erosoagoa dela, hitz-etorria arindu egiten duelako. Eta horren erakusgarri da ahozko mintzaldian aditza espontaneoki aurreratzen dela, kasurik gehiengotan. Nire ustez, aditz-aurreratze horiek guztiz logikoak dira euskaraz ere, eta horiek esplikatzeke ez dago jo beharrik aurreratze horiek erdaren eragin huts gisa ikustera.

Beste adibide bat jarriko dut. Hona zer mezu eman zidan behin nire ordenagailuko programa informatikoak:

– Ezin «F:\Comun\Informes\02febrero(informes)\Bbetiko Esteribar 08.doc» gorde. Karpetak «Irakurtzeko soilik» marka du.

Adibide horretan, ulergaitzasuna ez du ezein perpaus txertatuk sortzen, baizik eta, besterik gabe, izen luzeegi batek, zeinak «gorde» aditza urrunegi bidaltzen baitu. *Ezin fitxategia gorde* esaldiak ez du inolako problemarik sor-

tzen; baina «fitxategi» ordez inolako katramilatze sintaktikorik gabeko izen luzeago bat ipintzeak, bai.

b) Konplexutze sintaktikoaren ondoriozkoa. Hots, perpaus txertatuek eragiten dutena. Atal hau bereziki joria da, eta honelako lan batean ezin da bere luze-zabal-sakonetan jorratu. Nolanahi ere, horri buruzko ikuspegi orokor samar bat ematen saiatuko naiz.

Aurretik, alabaina, ezin adierazi gabe utzi Pello Esnalekiko nire adostasuna XX. mendeko euskal testuetan SOA egitura neurritz kanpo erabiltzeari buruz hark egiten duen kritikan. Eta gehiago esango nuke: kazetaritza sensazionalistaren antzera, zeinak goiburu baitu, jakina denez, «errealitateak ez diezazula titular on bat honda», euskal testugile eta itzultzaile askok, ustezko euskara «jatorrari» buruzko ikusmolde jakin baten eraginpean, gidalerro izan dute, antza, «jatorrizko testuarekiko leialtasunak ez diezazula SOA eredia honda». Alegia, badirudi erabateko lehentasun gisa hartu dutela euskaraz SOA ordenari eustea, beste edozein irizpideren gainetik; eta, hori helburu, prest egon direla are jatorrizko testua aldatu emateko. Esnalen liburuan ez da horren adibiderik falta.

Nire iritziz, perpaus txertatu bat, den bezain laburra ere, egote hutsak, ordura arte sinplea zen perpausa konplexutzen du, halako moldez non edozein perpausetan aplikatzeko moduko irizpide objektibo bat eskaintzen baitigu; hots, hitz-ordenaren eredia aldatu beharra dagoela jakinarazten digun seinale bat. Adibidez:

- Mikelek egia esan du.
- Mikelek biharko bazkarira bere semearen futbol-partidaren ondoren etorriko dela esan du → Mikelek esan du biharko bazkarira bere semearen futbol-partidaren ondoren etorriko dela.

Jakina, ondoko adibidean, oso soila denez, ulergarritasuna ez da kalte-tzen:

- Mikelek egia dela esan du.

Baina hau ere posible da:

- Mikelek esan du egia dela.

Aditza aurreratzeke dagoen irizpiderik ziurrena, argiena eta, batez ere, objektiboena, perpau txertatuaren presentzia hutsarena iruditzen zait, perpau txertatuaren agerpenak haren eskuinean dagoen elementuaren atzerakarga sortzen duelako ia beti.

Perpau txertatuaren irizpide hori ez da berariaz euskararentzat eginiko inolako proposamen originala, baizik eta gure inguruko hizkuntza indartsu batzuetan guztiz aintzat hartzen dena, aditzaren atzerakarga saihesteko. Hona hemen adibide pare bat:

– Ingelesez, konpara ditzagun bi esaldi hauek:

The exam was difficult

It was difficult to find a doctor in that city

Bien arteko alde bakarra esaldiaren subjektua da: lehen adibidean, subjektua sintagma bat da (*the exam*), eta bigarrenean, perpau txertatu bat (*to find a doctor in that city*). Baina bigarren esaldian, subjektuaren luzeak aditza urrunegi ez dezan bultza, «it» hori erabiltzen da (*it as a preparatory subject* bezala ezagutua), egiazko subjektuaren ordezkari-edo gisa, horren eskuinean berehala aditza jarri ahal izateko. Hori egin ondoren, esaldiaren egiazko subjektua (*to find a doctor in that city*) nahi bezain luzea izan daiteke, eta horrek ez du ulermen-problemarik sortuko, aditza jadanik aurreratuta dagoelako.

– Alemanezko ondoko bi esaldi hauek osagarri zuzenari dagokionez konparatuko ditugu orain:

Ich habe die Wahrheit gesagt (=Egia esan dut)

Ich habe gesagt, dass du sehr klug bist. (=Esan dut oso azkarra zarela)

Lehenbiziko esaldian, osagarri zuzena sintagma bat da (*die Wahrheit*), eta aditzaren partizipioa horren ondoren doa, esaldiaren amaieran. Baina osagarri zuzena sintagma baten ordez perpau txertatu bat denean (*dass du sehr klug bist*), partizipioa osagarri zuzenaren aurretik jartzen da, atzerakarga saihesteko.

Era berean, euskaraz ere beharrezkoa gertatu ohi da aditza aurreratzea. Eta, nire iritziz, posizio-aldaketa horrek ez du nahitaez galdegai bihurtzen aditza aurreratuz gero haren ezker aldean suertatzen den elementua. Adibidez:

- Parlamentuak ezintasunen bat duten pertsonak eta euren senitartekoak ordezkatzan dituzten erakundeek ezintasunarekin lotutako politika publikoak osatu, segitu eta ebaluatzen parte har dezaten bultzatzea erabaki du.

Argi dago esaldi hori ulergarri egin behar dela. Horretarako, eta lehen urrats bezala, «erabaki du» aditz nagusia aurreratu behar da. Perpausa horrela geldituko da:

- Parlamentuak erabaki du ezintasunen bat duten pertsonak eta euren senitartekoak ordezkatzan dituzten erakundeek ezintasunarekin lotutako politika publikoak osatu, segitu eta ebaluatzen parte har dezaten bultzatzea.

Ez zait iruditzen euskaldun gehienek ulertuko dutenik esaldi horren helburua denik ohartaraztea erabaki-hartzailea Parlamentua dela (eta ez, adibidez, beste erakunde bat).

Horrela, ba, galdegaiaren legea indargabetu edo, gutxienez ere, asko ahulzen da, ulergarritasuna bermatzearen aditza aurreratu beharra dagoenean.

Garrantzitsua iruditzen zait azpimarratzea aipaturiko ulergarritasun-problema euskarazko hizkera arruntean bertan gertatzen direla; ez bakarrik hizkera espezializatueta. Horregatik, zeharo ados banago ere, adibidez, Jesus Maria Agirrek estilo jarraituaren eta esamolde prepositiboen alde adierazitakoekin², okerreko ideia iruditzen zait estilo eta esamolde horiek hizkera espezializatueta-rako soilik lantzea, edo gehienbat hizkera horiekin lotuta irudikatzea. Hizkera arruntean ere erruz agertzen zaizkigu, eta halakoen behar gorrian gaude.

Horren erakusgarri, ingelesezko bi adibide jarri nahi nituzke. Funtsean, biek egitura bera darabilte, eta aitortzen dut nahigabea sentitzen dudala euskaraz ezin aurkitzeaz ingelesak adibideetako ideia konplexu samarra adierazteko daukan aisetasun bera:

- *Life does not cease to be funny when people die any more than it ceases to be serious when people laugh* (George Bernard Shaw, *The Doctor's Dilemma*)

² Jesus Maria Agirre Berezibar, *Hizkera juridiko-administratiboan esamolde prepositibo berriak hedatu beharra*, 31 eskutik bloga, 2012-10-26, eta *Estilo jarraituaren alde*, 31 eskutik bloga, 2013-05-20

- *To be a king and wear a crown is a thing more glorious to them that see it than it is pleasant to them that bear it* (Elisabet I.a Ingalaterrakoa, *The Golden Speech*, 1601eko azaroaren 30ekoa)

4. Atzerakargak, mota ezberdinetakoak

Normalean, aditzaren atzerakargaz hitz egin ohi da, baina ez da aditza bakarrik *atzerakargatuta* agertzen dena.

Atzerakarga-kasu ezberdinen sailkapen edo deskribapen bat egiten saiatu naiz. Ez dut izan modu agortzailean jarduteko asmorik, ezta ahalik ere; horregatik, guztiz litekeena da sailkapen osatugabea izatea, edo beste modu batean egin beharrekoa izatea (ongi etorriak dira, beraz, ekarpen guztiak). Izenburu bakoitzaren azpian adibide bat edo gehiago jaso ditut. Hona hemen:

1. Aditzaren atzerakarga

- *Lege proiektuaren helburua* «gizarteratze-errenta orain prestazio bidezkoa izatea, behar eta eskari sozial berriei egokitua egotea eta, horretaz gainera, prestaziora heltzeko, prestazioa izapidetzeko eta zehapen-araubidea aplikatzeko garaian segurtasun handiagoa barneratzea» **da**.

2. Aditz-izenaren atzerakarga

- *Mahaiak erabaki hau hartu zuen, besteak beste: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko testua onetsi zeneko hogeita hamargarren urteurrena ospatzeko Osoko Bilkura egiteko arauak onestea*.

3. Aditzaren eta subjektuaren atzerakarga

Hitz-ordena hau barra-barra erabiltzen da euskarazko hedabide batzuetan, eta asko harritu izan nau betidanik. Nire inpresioa da aditza ez aurre-

ratzeko seta baten ondorioa dela. Aditza aurreratu gabe esaldia nabarmen ulergaitza dela ikusirik, aditza eta subjektua bata bestetik hurbil egoteko aditza aurreratu beharrean, subjektua hurbiltzen diote aditzari, subjektua ere atzeratuz. Hitz-ordena zeharo antiinformatiboa iruditzen zait, eta, hain zuzen ere horrexegatik, horren aldeko aukera egin dutenak zer eta hedabide izatea, guztiz paradoxikoa. Adibideak:

- *Curriculumaren aurka egin zutenek atzera egin beharko luketela **esan du Camposek**.*
- *Jaurlaritza ez dela neurriak hartzeko gai **diote ekologistek**.*

4. Izenaren atzerakarga

- *Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sisteman jarraitzen duten funtzionarioen eskubide pasiboen araubiderako **arauak**.*
- *«Mintzamina eta entzumena oinarritzko hizkuntz trebetasunak direla, hizkuntza bakoitzak bere egitura eta erregela-sistema propioak dituela eta hizkuntza azturak sortuz ikasten dela funtsezko ustetzat dituen hizkuntz irakas-kuntzari buruzko **planteamendua**» (Euskalterm-ek «planteamendu audiolingual»i buruz ematen duen definizioa).*
- *Erlatibozko perpaus baten ondoriozko izen-atzerakarga: *Gobernuaren urte askotako kudeaketa txarrak eragin duen defizit publikoa bat-batean eta neurritz kanpoko mozketekin gainditu behar dela* dioen **politika** oso kaltegarria da.*

5. Izenaren, aditzaren eta subjektuaren atzerakarga

- *AEBen eta Europaren ahulaldietan Txinak, Indiak edo Brasilek ekonomia-ren lekukoa hartuko zutela zioen **teoria lurperatu dute NDFko txostenaren egileek**.*

6. Aditz nagusiaren atzerakarga, ezezkoetan

- Auzitegiaren arabera, irakasgaiaren edukiak **ez du** gurasoek beren seme-alaben heziketa moral eta erlijiosa aukeratzeko duten eskubidea **urratzen**.
- Zergatik **ez da** 49/2008 Foru Aginduak ezartzen duen diru-kopuru osoa **erabili**?

7. Egitura postpositiboan berezko atzerakarga

Adibide batzuk:

- Konparazioak:
*Zergadunaren urteko diru-sarrerak handiagoak baldin badira 25. artikuluko 1. idatz-zatiko kontzeptuei 37. artikuluko deskontuak aplikatuz lortzen den emaitza **baino...***
- Hitzaren tamaina zehaztasunak duten albistearen kopuruaren **baitan** dago.
- Nekazaritza eta abeltzaintza industrial eta intentsiboa elikadura burujabetzan oinarritutako ereduaren ahalbidetzeari **begira** jartzea (adibide honetan, hala ere, besteren batean bezala, bi atzerakarga daude metatuta: *-i begirarena eta jartzea aditz-izenarena*).

8. Aditza+»-ELAKO» tankerako atzerakarga

- Ezezko botoa emango dugu, horrelako erabaki batek aurretiazko azteraldi luzea eta azterketaren emaitzari buruzko gogoeta sakona eskatzen dituela **pentsatzen dugulako**

9. Izen deklinatuaren eta aditz-izen deklinatuaren atzerakarga

- Aurrekontu-igoerak gertatu dira Hemoterapia Sarearen eta zelulen eta ehunen zentro eta zerbitzu guztien kudeaketaren eta funtzionamenduaren gaineko kontrolak eta auditoriak egiteko eskualde-**planarengatik**.

- Ez du balio orain arteko guztia gaizki eginda dagoela, zuek ez duzuela errurik izan eta etorkizunean dena aldatuko dela **esateak**.
- Premiazko neurriak hartu behar izan genituen, norainoko kalteak egin diren eta horiek konpontzeko (edo, gutxienez ere, samurtzeko, kalte batzuk konponezinak baitira) kalte-ordainak noren erantzukizuna diren **aztertzearekin** zerikusia dutenak, gehienbat.

5. Proposamenak

Jarraian proposatuko ditut atzerakargak sortzen dituen esaldi antikomunikatiboak zuzentzeko egokiak iruditzen zaizkidan irtenbideak.

5.1. Subjektua eta aditza esaldiaren hasieran jartzea

Horrela, 1. motako atzerakargan, esango genuke: «*Lege proiektuaren helburua da...*»

3. motakoan, honako hau esango genuke: «*Camposek esan du...*» Edo «*ekologistek diote...*»

Eta berdin, 8. motako atzerakargan: «*Ezezko botoa emango dugu, pentsatzen dugulako...*»

5.2. Izena esaldiaren hasieran jartzea

Izena aurreratzean, komenigarria edo beharrezkoa izan daiteke doikuntza txikiren bat egitea (azpimarraturik):

4. motako atzerakargan, honela gelditi liteke: «**Araua**k, (...) funtzionarioen eskubide pasiboen araubiderakoak».

«*Hizkuntza irakaskuntzari buruzko planteamendu bat, (...) funtsezko ustetzat dituena*».

5.3. Ezezko aditzen atzerakargari dagokionez, aditz laguntzailea eta nagusia elkarrengandik ez bereiztea:

«Auzitegiaren arabera, irakasgaiaren edukiak ez du urratzen...»

«Zergatik ez da erabili...?»

5.4. Erlatibo konplexuetarako «halako(a)... non» egiturak zenbait kasutan duen baliagarritasuna aintzat hartzea

Jo dezagun honako erlatibo hau daukagula:

«Azken finean, hori guztia suspergarri bat izan da, **mankomunitateak toki entitate den aldetik bete behar dituen administrazio-prozedura arautuetatik kanpo zeuden egoerak eta egintza ekonomiko eta finantzarioak ager zitezten**»

Erlatibo hori ulergarriago egiteko modu bat honakoa izan liteke:

«Azken finean, hori guztia suspergarri bat izan da, **halako egoerak eta egintza ekonomiko eta finantzarioak ager zitezten, non** mankomunitateak toki entitate den aldetik bete behar dituen administrazio-prozedura arautuetatik kanpo baitzeuden».

5.5. «Zera» erabiltzea iragarle gisa: SOAO eredua

Euskaldun peto-petoek maiz esaten dituzte horrelakoak:

«Zerarako erabiltzen du, etxe guztiko leihoetako kristalak garbitzeko, komunak eta zorua desinfektatzeko, eta abar».

«Zerarekin jo zion, hor sarrerako atearen aldamenean gordeta daukagun makilarekin».

Horrelakoetan, «zera»k iragarle-funtzioa betetzen du, ondoren datorren zerbaiten lekua hartuz. Nolabait, errepikatu egiten du kasuko esaldiko objektu edo osagarria, eta argi dirudi horren arrazoia dela SOA egiturari nolabait eustea, baina aditza objektu eta osagarri guztien amaieraraino eraman

gabe. Iruditzen zait horrelako egiturek euskarazko testuetarako duten emankortasun guztia ez dela aprobetxatu. «Zera» horren erabilerari lagunarteko irizten omen zaio, baina pena da hori, oso baliagarria iruditzen baitzait euskarazko testuetarako.

5. motako atzerakarga honela arindu daiteke: «*NDFko txostenaren egileek zera lurperatu dute, AEBen eta Europaren ahulaldietan Txinak, Indiak edo Brasilek ekonomiaren lekukoa hartuko zutela zioen teoria*». Edo hobeto honela, izenaren atzerakarga ere konpontzeko: «*NDFko txostenaren egileek zera dioen teoria lurperatu dute, AEBen eta Europaren ahulaldietan Txinak, Indiak edo Brasilek ekonomiaren lekukoa hartuko zutela*».

Konparazioetako atzerakarga (7. motakoa) zuzentzeko ere, oso lagungarria da «zera»: «*Zergadunaren urteko diru-sarrerak handiagoak baldin badira zera baino, 25. artikuluko 1. idatz-zatiko kontzeptuei 37. artikuluko deskontuak aplikatuz lortzen den emaitza...*».

«Zera» bereziki erabilgarria iruditzen zait izen eta aditz-izen deklinatua-
ren atzerakarga gertatzen denerako (9. zenbakiko atzerakarga):

- «*Aurrekontu-igoerak zeratetik gertatu dira, Hemoterapia Sarearen eta zehulen eta ehunen zentro eta zerbitzu guztien kudeaketaren eta funtzionamenduaren gaineko kontrolak eta auditoriak egiteko eskualde-planarengatik.*»
- «*Ez du balio zera esateak, orain arteko guztia gairi eginda dagoela, zuek ez duzuela errurik izan eta etorkizunean dena aldatuko dela.*»
- «*Premiazko neurriak hartu behar izan genituen, gehienbat zerearekin zerikusia dutenak, norainoko kalteak egin diren eta horiek konpontzeko (edo, gutxienez ere, samurtzeko, kalte batzuk konponezinak baitira) kalte-ordainak noren erantzukizuna diren aztertzearekin.*»

Azpitarratu nahi nuke ez naizela planteatzen ari «zera»ren ondotik bi puntu jartzea, baizik eta «zera» hori perpaus barreneko elementu sintaktiko gisa erabiltzea. Alegia, kontua ez dela bi puntuko zeinuak etendako perpaus baten jarraian azalpen gisako bat ematea. Horrenbestez, «zera» hitza izango litzateke ondoren datorren objektu edo osagarriaren iragarle eta, aldi berean, errepikapen bat. Hain zuzen ere, lehen aipatu dugun ingelesezko *it as*

a preparatory subject horren antzera. Edo frantsesezko honako galdera-egituren ildokoa:

- *Le président a-t-il le droit de se représenter en 2012?*
- *La vérité est-elle relative?*

Badakit adibide horiek ez dituztela erakusten euskarazko «zera»ren erabilerrako proposatzen ditudan kasu zehatzak, baina hizpidera ekarri ditut ohargarria eta inspiratzailea iruditzen zaidalako guztietan agertzen den iragarle- edo ordezkari-funtzioa.

Honainokoak proposamenak. Gaia aski axaletik jorratu badut ere, itxaropena dut adierazitakoak gogoetarako –eta kritikagai gisa ere, noski– balio izango zuela.

Bibliografia

Lur Hiztegi Entziklopedikoa, Lur Argitaletxea, 1991

Diccionario Esencial Santillana de la Lengua Española, Santillana, S.A., (lehen argitalpena: 1991ko iraila; hamaikagarren berrinprimaldia, 1997ko iraila)

Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa, Euskaltzaindia, 2011

Berbak Antolatzen

Organizando las palabras

Organiser les mots

Organising words

DEL OLMO, Karlos
Itzultzailea eta idazlea

Noiz jaso: 2013-04-30

Noiz onartua: 2013-07-09

Euskera. 2012, 57, 3. 523-537. Bilbo
ISSN 0210-1564

Hona hemen *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* liburua aurkezteko antolatu ekitaldiko mahai-ingururako prestatutako gogoeten funtsa. Berbak antolatze modua aztertzean kontuan izan beharreko kontzeptu bikote batzuk aurkezten ditu: aukera eta beharkizuna, sintaxiaren malgutasuna eta eduki semantikoaren zurruntasuna, konbentzioa eta komunikagarritasuna, estilistikaren dinamikotasuna eta eboluziozko izatea. Itzulpen teoria gaia aztertzeako ontsu gertatzen dela adierazi gura du egileak.

Hitz-gakoak: sintaxia, estilistika, itzulpengintza, komunikazioa, Aitagurea.

Presenta unos conceptos duales que han de ser muy tenidos en cuenta a la hora de organizar las palabras: oportunidad y obligación, flexibilidad de la sintaxis y rigidez del contenido semántico, convención y comunicabilidad, dinamismo estilístico y evolución. El autor considera que los estudios de traducción pueden ser útiles a la hora de analizar el uso estratégico del orden de las palabras.

Palabras clave: sintaxis, estilística, traducción, comunicación, Padre Nuestro.

Il présente des concepts duels dont il faut surtout tenir compte dans l'organisation des mots : opportunité et obligation, flexibilité de la syntaxe et rigidité du contenu sémantique, convention et communicabilité, dynamisme stylistique et évolution. L'auteur considère que les études de traduction peuvent être utiles à l'heure d'analyser l'emploi stratégique de l'ordre des mots.

Mots-clés : syntaxe, stylistique, traduction, communication, Notre Père.

Some paired concepts which must be borne in mind when analysing word organisation are presented: option and obligation, syntactical flexibility and semantic content rigidity, convention and comprehensibility, stylistic dynamics and being evolutionary. The author considers that translation theory is helpful in studying this topic.

Keywords: syntax, stylistics, translation, communication, Lord's Prayer.

«Esaldi guztiak esanguratsuak dira, baina ez izatez, baizik eta, esan dugun legez, konbentzio hutsez»: horrela zioen Aristotelesek *De interpretatione* lan ospetsuan, eta XXI. mendean ia hogeita lau gizaldi atzera egitea ez da apeta hutsa, beharra baizik; azken buruan, filosofoak garai hartan jada jarrita utzi zuelako gaur egun kezka sorburu darabilgun auzia argitzeko harroina. Eta zein da zimendu hori? Konbentzioarena, hain zuzen ere, alegia, solaskideen artean edo idazlearen eta irakurlearen artean eratzen den ulermen sistema dinamikoa. Dinamikoa, hain suertez, etengabe aldatzen delako, bizirik egotean, bizidunenaren antzeko jokamoldea duelako. Hitzunon tresnak direnez gero, konbentzioak ere, zertan esanik ez, aldakor eta dinamiko dira, eta aldakortasun hori garrantzizkoa da hitzak esaldietan antolatzeko manera langaitzat erabiltzean, urtea joan urtea etorri, hitzunak, kulturak eta gizarteak aldatzen direlako eta, haiekin batera –eta ezinbestean–, hizkuntzako konbentzioak. Beraz, hizkuntza baten barruko hitzen ordena aldatuz doala onartu beharra izan beharko dugu, bai hizkuntza une jakin batean aztertze-ko orduan, bai, mintzagai dugun liburuak legez, estrategiak proposatzean; arrakasta izango badugu, aldi baterako baino ez direla onartu besterik ez dugu izango eta.

Hitzun edo idazle batek zer edo zer aditzera eman gura duenean, honela formula genezake egoera: «Urlia ahalegindu da *zer* jakin bat Berendiaren-gana igorrita, eraginen bat lortzen, hartzailleak, Berendiak, ahalegin hori errekonozitzearen bidez». Ekintza horretan, semantikaren eremura hurbilduko gara gura eta gura ez: hitzen hurrenkera, enfasia, intonazioa (ahozkoan, jakina), etenak (ahozkoan) edo puntuazioa, aditzaren modua, hiztegi aukerak... Intentzioaren (asmoaren) eta konbentzioaren arteko harreman dinamikoaz dihardugu, ostera ere.

Eta konbentzioarena hobeto azalduko badugu, bi giltzarri kontzeptu izan beharko ditugu kontuan gaiari oratzeko orduan: beharkizuna eta aukerakizuna. Zer dugu beharkizuna? Unean uneko hizkuntz sistemak (ezaugarri multzo bizi eta aldakorra den aldetik) premiatzen duena; alegia, sistematik at dagoen guztia debeku duena, berbeta sistema konbentziosko horri ez dago kiolako, ezinbestean modu jakin batean –eta horretan soilik– adierazi beharrekoa, hiztuna edo idazlearen guraria gorabehera, komunikazio eraginkorra gertatuko bada (jakina, arau horiek ez betetzeak ez du zertan ko-

munikazioa galarazi, komunikazioaren bi alderdiek araua hausten duten elementuak ulertzen badituzte, baina osagai horiek hizkuntza horretakoak ez direlako kontzientzia izango dute). Gainerako guztia «aukera» edo aukerakizun genuke, hiztun edo idazle bakoitzak unean-unean hauta dezakeena egoera pragmatikoaren arabera, komunikazio eraginkorra (asmo poetikoa edo sortzailea goiti-beheiti) eratzea helburu duela.

Arestiko horretan genuke, hain suertez, beste gogoetagai garrantzitsu bat: komunikazio eraginkorra edo arrakastatsua. Hiztunen artean komunikagarritasun eta arrakasta maila ezberdinak gertatzen dira, ezinbestean (irudika dezakegu 0tik 10era bitarteko lerro baten antzera, non bi muturren artean arrakasta maila ia infinituak gerta daitezkeen. 10ekoa erabateko ulermena litzateke, eta komunikazio egoera oso estandarizatu eta konkretuei lotuta egon ohi da. 0 gradua ulertu ezinari dagokio, eta mota askotako eragileen mendean dago. Bi egoeretan, eragile batzuk igorleari dagozkio, eta beste batzuk hartzaileari, nor bere adierazpen eta ulermen estrategia eta gaitasunen jabe denez gero). Psikolinguistikaz gaur egun dakigunaren arabera, komunikatzaileak –ahoz zein idatziz– ez du modurik segurantziaz jakiteko hartzaileak benetan zer ulertu duen. Beraz, gehienik ere, komunikazio arrakastatsuaren mailez hitz egin beharrean geundeki: igorle batek «urdin» dioenean ezin jakin dezake hartzaileak irudikatuko ote duen berak buruan darabilen kolore hura. Beste honenbeste esan dezakegu esaldi kate batean «nahiz eta» adieraztean gertatzen denaren inguruan: indar maila berekoa da «nahiz eta» hartzailearentzat eta igorlearentzat, ala semaforo moduko bat dugu, hartzaileari interpretatu beharreko seinale halako bat igortzen diona? Beraz, komunikazio arrakastatsuaren mailez hitz egin behar genuke estrategiei heltzeko orduan.

Horrekin zerikusia duen beste kontzeptu bikote bat ere aipatu beharrekoak dira: elementu markatua vs. elementu neutroa. Aztergai darabilgun auziari, eleak kateetan eratzeari, dagokionez, noraezekoa da gogoan izatea une eta leku jakin bakoitzean igorlearen eta hartzailearen artean antolatzen den komunikazio egoeran, hitzak josteko modu batzuk neutroak izango direla, markarik gabeak; beste batzuk, ordea, markatuak izango dira, koloredunak. Elementu mota biak sistemakoak dira bete-betean eta ez dute ezelako araurik hausten, baina elementu markatuek dituzten tasun berezien ondorioz adie-

razpen indar ohiz kanpokoa sortzen dute. Deklinabideari dagokionez, esaterako, «etxearen paperak» eta «etxeko paperak» bikotea aztergai hartuz gero, bizidunei dagokien tasuna duen bikotea markatua genuke komunikazio sistema arruntean (jabetasuna bizidunei dagokielako). Beste hainbeste gertatzen da SOA antolamenduarekin ohituta dagoen hartzaileak SAO hurrenkeran datorren esaldi bat entzun edo irakurtzean (baita alderantziz ere): seinale berezi bat jasoko du, eta sistema arruntzat duenaren arabera interpretatu edo horretara «itzuli» beharrean izango da. Adibide bikote batek balio dezake hori argiago ikusteko: solaskideak edo idazleak esaldia «ordea» hasieran erabilia eratzten badu, «ordea» aurkaritzako lokailua esaldian bigarren kokalekuan topatzen ohituta dagoen hiztunak markatuzat joko du. Edo elementu errazago batekin gertatzen dena: «bi» zenbatzailea izenaren ostean ez darabilenarentzat, ordena markatua litzateke «esaldi bi» aditzea edo irakurtzea. Zertan esanik ez, sisteman «ari izan» ez duen euskalki bateko solasturiak, gura eta gura ez, markatuzat joko du parafrasi horren bitartez eraturako ele katea. Hortaz, dena delako estrategia erabiltzeaz jardutean, soziolinguistikan bezala, idiolektoak izan behar ditugu kontuan, hau da, dena delako berbaldia jaso behar duenaren sistema. Bestela esanda, Hizkuntza Atlasak mintzamoldeen gainean emandako informazioa abiaburu hartuta, estilistika ere ikertzen hasi beharko dugu maiztasunen arabera, Euskal Herri osoan zein hurrenkera diren arruntak eta zein berezi oinarri zientifikoz argituko badugu, bestela bakoitzak bere iritziaren arabera «txokokeriatzat» joko duelako hiztun askorentzat eta askorentzat guztiz egunerokoa eta ez-markatua dena (arrotza beti inorena, bestearena).

Jakina, estilistika berbabidera ekarrita, ez dugu ahaztu behar gaur egun euskal corpusetan eta eredugarri kalifikatutako bildumaren batean jasotako adibide asko eta asko, azken buruan, argialetxeetako eta hedabideetako zuzentzaileen aukerak edota eredugarri zer den erabakitzeko ahalmena dutenen apetak direla. Bestela esanda, lagin horiek ez dute jasotzen XXI. mendeko une jakin honetan euskara osoa zer eta zertan den. Hortaz, oso kontuz erabili beharreko materialak dira, errealitatearen zati baten berri baizik ematen ez dutenez gero.

Honaino helduta, itzulpen ikerketan ezagun-ezagunak diren zenbait kontzeptu ekarri behar ditugu lerrootara, horrek *Hitz-ordena. Erabilera estrate-*

gikoa lanak jorratzen duen gaia beste argi batez ikusten lagunduko digulako. Lehena ondoko hau da: hiztegia zurruna da, berba baten esangura ezin delako behartu hiztunaren edo idazlearen nahierara. Sintaxia, ordea, malgua dugu, mezu bat emateko hainbat era eskaintzen dizkigulako, ugari eskaini ere. Beste moduz: igorleak, hiztegiaren aukera zurrunagoak gaudituta, oso tresna ahaltsua du komunikatu nahi duena antolatzeko, berbak hurrenez hurren josteko aukera ia mugagabeak direnez gero (markatuak zein ga-beak). Bestalde, ez dugu ahaztu behar berbaldirik edo testurik teknikoenean ere, terminoak (erabilera arruntetik bereizten den erabileradun berbak) osotasunaren %5 eta %10 bitartean besterik ez direla, gainerakoa fraseologia hutsa da, hau da, estiloa. Eta estilo aukerak mugagabeak izan daitezke. Ez da kasualitatea hemen «itzulpena» aipatzea, estrategiez dihardugula, «arazoak» pentsamendua idatziz jartzerakoan sortu ohi direla argi samar ikusi eta halaxe onartzen dugulako denok, hau da, ahozkoa edo pentsamendua «paperera» itzultzen dugunean. Premisa moduan onartzen badugu idatzia ahozkoaren edo pentsamenduaren «itzulpena» dela, igarri-igarria da itzulpengintzan ezagun diren teknikak eta estrategiak oso lagungarri gertatuko direla azterlanak sakondu eta strategi proposamenak egiteko sasoian.

Beste kontzeptu garrantziko bat dugu giza komunikazioaren unibertsalena. Hipotesi moduan pentsa dezakegu laguntza (SOS) eskatzen duten pertsona guztiek antzeko mekanismo psikolinguistikoek bultzatuta antolatuko dituztela berbak munduan barrena, komunikazio eraginkorra lortu ezean, porrot eginez gero, heriotza letorkiekeelako laguntza deia modu ez-komunikatiboan igorritz gero. Beraz, komunikaziorako eragile edo eragingarri ez diren hurrenkerak hizkuntzetatik berez desagertuz joango dira (batez ere ahozkotik, idatzizkoan komunikazioa lortzea beti ez delako lege nagusia, bestelako helburu batzuk ere izaten direlako, esate baterako, estetikoak). Aipatu unibertsal horiek euskarari ere ez zaizkio arrotz, eta linguistikak onartzen duenaren arabera, hiru motatakoak izan daitezke: substantiboak (kategoria mailakoak), formalak (hizkuntz arauekin erlazionatuak, aldez edo moldez, gure alorrekoak) eta inplikaziozkoak (hizkuntzaren ezaugarrien artean gertatzen direnak).

Guztiarekin ere, solasturien arteko harremana (edo idazlearen eta hartzaileen artekoa) dialektikoa da, negoziazioan oinarritua eta beharkizuna-

ren eta aukeraren arteko orekan fundatua, besteak beste. Ondorioz, arauen (beharkizunen) inguruko debatea desdramatizatu eta beste alor batera eramian beharrean gaude; auzia, azken buruan, unean uneko komunikazio helbururako egokien gertatzen den berba antolaera aukeratzean datzalako. Eta horretan lagungarri gerta daitezke oso *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* liburuan ebakitzen hasitako bideak, baita literatura egiteko orduan ere.

Bestalde, Peter Newmark traduktologoak egiten duen testu sailkapena akordura ekarteak on egin lezake, neurri handi batean, testu sail nagusi horietako bakoitzaren helburuek antolamendu aukerak baldintzatzen dituztelako. Bateko, testu «autoritatiboak» (agintedunak) dira, testuaren beraren nahiz egilearen estatusagatik zama handi halako bat edo balio berezi bat dutenak. Alegia, egilearen garrantzia gorago jartzen duen idatzia dugu, eta hartan idazlearen aukerak eta apetak (estiloa) dira nagusi, hitz ordena horren zerbitzuan dago-eta. Beste testuetan, komunikatibotant, egilea baino garrantzitsuagoa da hartzailea, eta helburu lehena modurik eraginkorrenean komunikatzea; beraz, berba eraketa horren mendean izango da, eta idazle «itzultzaileak» askeago joka dezake, bera ez delako gunea, hartzailea, bestea baizik.

Pentsamendua ahozkotik idatzira «itzultzeko» lanabes baliotsuak eta tresna horien bilakaera aztertzeo oinarri sendoak eskaini dituzte zenbait lanek, besteak beste, kontsideratu beharrekoak ditugu Alzoren *Estudio sobre el euskera hablado* (1961), Euskaltzaindiaren *Ohiko euskal mintzamoldeen antologia* (1999), Gotzon Garateren *Erdarakadak* (1988), Justo M. Mokoroaren *Ortik eta emendik* (1990) eta *Websteren Ipuinak* (1993), Koldo Mitxelearen zuzendaritzapean abiatutako *Orotariko Euskal Hiztegi* gogoangarria ahaztu gabe.

Argiroago azaltzeko, har dezagun adibidetzat Justo Mokoroaren lanetik eskuratutako lagin bat, kontzeptu beraren inguruko esaldiek osatua (eguraldiak euri itxura izatea). Esamoldeak dira, jakina, eta esateko moldeagatik beragatik antolamenduagatik bezain interesgarri gertatzen dira. Zertan esanik ez, esamolde horiek ez dira trukagarriak eta baliokideak, bestelakorik gabe, baina bidaide egokiak izan ditzakegu komunikazioaren eta ordenaren arteko harremana sakontzeko orduan:

- (Euri-tantoak asten ditu...) «-Bai: ez dakar malezi aundirik, baña obeko degu barrena sartu».
- «Ebia egiteko antzik eztu».
- «Ebi-itxura artzen du».
- «Egualdi onek' orain-ere eresan bear du»
- «Eraso nai balio bezela dago» (Eguraldia).
- «Euria bai asi edo ez asi zegoan».
- «Euri-kara dago».
- «Ez dakit ba... euria larri-larri ez ote dagon».
- «Gaur eztago euririk egingo daben antzik».
- «Itxurak artzen dítu baiña eziñ egin du».
- «Kalea bustita dago' ta ondiño euritara, antza».
- «Negarrari eman nahi zion denborak».
- «Odeiak, legortean' keiñuka buru-gaiñean...: gaur erasoko... biar lertuko».

Beste lagin batek ere argi egingo digu, *Erdarakadak* lanetik erauzita da-goela (1988: 190), errepikatuak kenduta. Sail honetakoak, aurrekoak beza-la, ez dira elkarren sinonimo semantiko garbiak, zatizkoak baino (gehienetan, bestalde, halakoxeak izaten dira benetako erabilera bizian sinonimoak):

- «an ibili gara kallerik kalle»,
- «an zebillen kuartoan jo alde bat ta jo bestea»,
- «arat ta unat»,
- «batik bertzera»,
- «harat hunat dabila sukaldean».
- «herrian an zebillen goitti ta beitti»,
- «kale asko pasau zitun»,
- «kale guztiak pasatu ditugu»,
- «kale luzeetan goiti ta beiti ibilli giñen»,
- «kale osoa goitik be(he)ra pasatu zuen»,
- «kale osoa pasatu zuten»,
- «kalean ibili zen batera bestera»,
- «kalean jo goia ta jo behea»,
- «kallean gora ta bera ibili gara»,
- «karrika lüze zonbaitetan ebili gira»,
- «karrika lüzeetan ebili gira»,

- «karrikan alde batetik bertzera ibili gara»,
- «karrikan goiti ta beiti ibili gara»,
- «karrikaz karrika aski itzuli egin zuten»,
- «karriketari gainti dabilta»,
- «karrikez karrike»,
- «koartoa batetik bertzera daile»,
- «plazan an ibilli ziran goiti ta betti!,
- «Somera kallean ibili naz batera ta bestera».

Beste adibide argigarri bat dugu, estilistikaren eta antolamenduaren aldetik, *Bibliaren* edo *Itun Berriaren* euskarazko itzulpengintza: aski dugu garai berean euskalkiz euskalki hainbat itzultzailearen bertsioei erreparatu eta horiek alderatzea bertatik ondorioztatzeko ordenamenduan handia izan dela. Edo, bestelakorik barik, asko da *Aitagurea* otoi-tza harroin hartzea – hastapeneko berbak eurak nahikoa argiak dira–. Esate baterako, Leizarragak berak bi bertsio eman zituen (Bata, Biblian eta bestea, *Katexismean*). Arana Martijak (2006: 169-191) bizkaierazko bertsioekin eraturako sortari begiratzea baino ez dago arin-arinka konturatzeko itzultzaileek erabilitako aukeraren oparoz, abiaburua oso testu finkatu eta sakratua (alegia, ukigaitz samarra) izan arren, eta hori aldaera guztiak euskalki berekoak izan arren.

Hala, euskalki beraren barruan hainbat bertsio elkarren ezberdin agertu badira, zer ez dugu esango hainbat euskalki eta garaitako bertsioak elkarren parean jarriz gero? Zenbat buru (mihi) hainbat aburu (esamolde, itzulpen, hurrenkera) esaera egia dela ezin hobeto erakusten dute:

Leizarraga (*Testamentu Berria*, 1571)

Gure Aita ceruëtan aicena,
 Sanctifica bedi hire Icana.
 Ethor bedi hire Resumá.
 Eguin bedi hire vorondatea,
 ceruän beçala lurrean-ere.
 Gure eguneco oguia
 iguc egun.
 Eta barka ietzaguc gure bekatuac,
 nola guc-ere offensatu gaituztenér

barkatzen baitrauëgu.
 Eta ezgaitzala sar eraci tentationetan,
 baina deliura gaitzac gaitzetic.
 Amen.

Leizarraga (*KatexisMEA*, 1571)

Gure Aita ceruëtan aicena
 Santifica bedi hire Icena
 EThor bedi hire Resumá.
 Eguin bedi hire vorondatea
 Ceruän beçala lurrean-ere.
 Gure eguneco oguia iguc egun.
 Eta barka ietzaguc gure bekatuac,
 nola guc-ere offensatu gaituztenér
 Barkatzen baitrauëgu
 Eta ezgaitzala sar eraci tentationetan
 baina deliura gaitzac gaitzetic.
 Ecen hirea duc resumá, puissançá eta
 Gloria secula seculacotz. Amén.

Hurrengo bertsioak, Bonaparte printzearen lanetatik jasoak dira:¹

Aezkera

Aita gurea zeruetan zaudena,
 santifika bedi zure izena.
 Etorri bedi zure erreinua.
 Ein bedi zure borondatea
 zeruan bezala lurrean ere.
 Eman dezaguzu egu gauren egunerosko ogia.
 Barka dauzkiguzu gauren zorrak,
 gala nola guk barkatzen baiteztegu gu zor gituztenei.
 Eta ezkitzazula utzi tentazioan erortzera,
 baia libra gitzazu gaitzetic.

¹ Bertsio hauek Aitor Aranak *Aitagurea* (2006) liburuan jasotako moduan doaz.

Behe-nafarrera

Gure aita zerietan zaudena,
etor bedi seinduki zure izena.
Yin bedi zure erresuma.
Egin begi zure boondatia
zerian bezala lurrian ere.
Eman ezazu egun gure eguneko ogia.
Barkha zkiautzu gure zorrak,
Guk zor gituztener barkhatzen tuun bezala.
Eta ez gitzazula utz tentamendian erortzera,
bana beira gitzazu gaitzetik.

Erronkaria

Aita gorria zeurietan zaudena,
santifikatruk izan deila zore izena.
Xin bekigu zore reinua gore gana.
Egin deila zore borontatia
kala zeurian nola lurrian.
Emon dazkiguzu egun gore eguneko ogia.
Parka dazkiguzu gore zorrak,
guk guri zor daikuguner parkatan digun bikala.
Eta ez gitzazu eitz tentazionian erortza,
baizik libra gitzazu gatxetik.

Gipuzkera

Aita guria zerubetan zaudena,
santifika dedilla zure izena.
Datorrela gugana zure erreinuba.
Egiñ dedilla zure borondatia
zeruban bezala lurrian ere.
Gaur iguzu gure eguneroko ogiya.
Barka zaizkigutzu gure zorrak
guk geren zordunai barkatzen dizkigun bezela.
Eta ez dizaguzula utzi tentaziyan erortzen,
baizik libra gitzazu gaitzetik.

Hegoaldeko goi-nafarrera

Aita gurea zeruetan zaudena,
 santifika bedi zure izena.
 Etorri bedi zure erreinua.
 Kunpli bedi zure borondatea
 zeruan bekala lurrean ere.
 Eman dezaguzu gure eguneroko ogia egun eta beti.
 Barka dazkiguzu guri geuren zorrak,
 ala nola guk barkatzen baitiogute gu zor gaituzteneri.
 Eta ez gaitzazula utzi tentazioan erortzera,
 baizik libra gaitzazu gaitzetik.

Iruñekoa (1621eko Juan Beriainen liburukoa)

Aita gurea zeruetan [zaudena],
 santifika bedi zure izen ori.
 Etorri bedi zure erreinua.
 Egin bedi zure borondatea
 zeruan bezala lurrean ere.
 Geure eguneroko ogia eman drazaguzu egun.
 Barka drazkiguzu gure zorrak,
 guk barkatzen dizkiotegun bezala gure zordunei.
 Ezkaitzazula utzi tentazioan erortera,
 [baia] libra gaitzazu gaitzetik.

Iparraldeko goi-nafarrera

Atte guria zeruetan zaudena,
 santifike bedi zure izena.
 Betor zure erreñue.
 In bedi zure borondatia
 zeruen bezala lurrian ere.
 Man zaguzu egun gure eguneroko ogie.
 Barka txaguzu geren zorrak,
 guk zor gattuztenei barkatzen ttogun bezala.
 Ta ez gatzazule utzi tentaziuen erortzera,
 bezik libre gatzazu gaitzetik.

Lapurtera

Gure Aita zeruetan zaudena,
 erabil bedi zure izena.
 Ethor bedi sainduki zure erresuma.
 Egin bedi zure borondatea
 zeruan bezala lurrian ere.
 Iguzu egun gure egunekko ogia.
 Barkha zagutzu gure zorrak,
 guk gure ganat zordun direnei barkhatzen diotzegun bezala.
 Eta ezkaitzazula utz tentamendutan erortzera,
 bainan begira gitzazu gaitzetik.

Zaraitzuera

Gure aita zeruetan zaudena,
 santifikatrik izan dadiela zure nonbrea.
 Xin dadiela gure gana zure reinoa.
 Egin dadiela zure borondatea,
 nola zeruan kala lurrian.
 Eman dazaikuzu egun gure egunorozko ogia.
 Parka dazaikuzu gure zorrak,
 kala nola guk parkatzen baitauztegu guri zor daukuiener.
 Eta ez gaitzazula utz tentazioan erotzera,
 baia libra gitzazu gaitzetik.

Zuberera (Bonaparte)

Gure Aita zeliatan zirena,
 erabil bedi saintüki zure izena.
 Jin bekigü zure erresuma.
 Egin bedi zure boronthatia
 zelian bezala lurrian ere.
 Igüzu egün gure egüneko ogia.
 Pharka itzagurtzu gure zorrak,
 guk guri zor düner pharkatzen deitzegun bezala.
 Eta ezkitzazula ütztentazionetan erortzera,
 bena begira gitzazu gaitzetik.

Ez da burua lar nekatu behar ondorioztatzeko aukera estilistikoek (hiztegiak eta antolamenduak) ia infiniturantz jo dezaketela, nahiz eta jatorrizko testua oso finkatua eta sakratua izan, alegia idazleek eta esatariek kontu handiz erabili beharrekoa.

Hortaz, hizkuntza bizirik dagoen zerbait dela onartuz gero, etengabe «osagaiak» galtzen eta irabazten dituela ere onetsi beharrean egongo gara. Berbalduna (eta eleketarien erkidegoa) ere bizirik dago, eta etengabe galtzen ditu eta sortzen hizkuntz osagaiak. Beraz, zilegi bekigu korolario moduan aldarrikatzea hizkuntza aldakorra bada, berbak antolatzeko moduak ere aldatuz joango direla sasoia joan sasoia etorri, eta une jakin batean arau edo beharkizun dena aukera bihur daitekeela eta, alderantziz, aukera dena arau edo beharkizun.

Beraz, euskararen sistemak berbak antolatzean ematen digun askatasun zabala ez baliatzea euskararen estandarizazioaren une honetan, ezin barkatuzko hutsa litzateke, batez ere datozen belaunaldiei begira, tresna kamuts samarra izango dutelako lanabes, altxor estilistikoa handia ere handia den arren. Azken buruan, oinarri-oinarrizko arau hautsezinak oso gutxi dira, gainera, gauza igarria da arau gutxi horiek apurtuz gero euskara ez den beste berbeta batean jardungo dugula. Bi mugakizun nagusi besterik ez dugu aurrendari: komunikagarritasuna eta sormena. Eta horien arteko orekan dautza estrategiak. Azken buruan, hiztunek garbizaleen arauak gorabehera berba egiten dute; idazleek ere arautze garbizaleak gorabehera izkiriatu egin behar lukete, hizkuntz sistemaren debeku argietatik harantzago sormena eta ulergarritasuna beste legerik ez balego bezala.

Bibliografia

ALZO, Diego J. de ., 1961, *Estudio sobre el euskera hablado*. Donostia : Argitaletxe ezezaguna.

ARANA, A., 2006, *Aitagueura*. Donostia : Hiria.

ARANA MARTIJA, J.A., 2006, «Sobre el Aita Gurea de Jerusalén», *Sancho el Sabio*, 24 (2006) 169-191.

- ETXEZARRETA, E., 2002, «Eliz testuak», *Itzulpen Antologia III*. Donostia : EIZIE.
- EUSKALTZAINDIA, 1999, *Ohiko euskal mintzamoldeen antologia*. Bilbao : Euskaltzaindia.
- GARATE, G., 1988, *Erdarakadak*. Bilbao : Gero argitaletxea.
- MOKOROA, J.M., 1990, *Ortik eta emendik*. Donostia : Etor & Labayru Ikastegia.
- NEWMARK, P., 1992, *Manual de traducción*. Madril : Cátedra.
- WEBSTER, W., 1993, *Ipuinak*. Donostia : Kriselu argitaletxea.